



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2021eko urtarrilaren 20a

6. ZK.

A U R K I B I D E A

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

—Iruñeko Udalaren 2019ko ekitaldiari buruzko fiskalizazio-txostena, Kontuen Ganberak egin (2. or.).

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Iruñeko Udalaren 2019ko ekitaldiari buruzko fiskalizazio-txostena, Kontuen Ganberak egina.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko abenduaren 21ean eginiko bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Kontuen Ganberak Iruñeko Udalaren 2019ko ekitaldiari buruzko fiskalizazio-txostena egin du.

Nafarroako Kontuen Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legearen 8.c) artikuluari dagokionez Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 205. artikuluan ezarritakoarekin bat, hona hau ERABAKI DA:

1. Txosten horren edukiaren jakinaren gainean dagoela adieraztea.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2020ko abenduaren 21ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Iruñeko Udalaren 2019ko ekitaldiari buruzko fiskalizazio-txostena, Kontuen Ganberak egina

AURKIBIDEA

Laburpen exekutiboa (3. or.).

I. Sarrera (4. or.).

II. Iruñeko Udala (4. or.).

III. Fiskalizazioaren helburuak eta norainokoa (8. or.).

IV. Iritzia (9. or.).

IV.1 Auditoretza finantzarioko iritzia (10. or.).

IV.2. Legeria betetzeari buruzko iritzia (11. or.).

V. Egoera-orri finantzario bateratuak (12. or.).

V.1. 2019ko ekitaldiko aurrekontuaren likidazioaren egoera-orri bateratua (12. or.).

V.2. 2019 ekitaldiko aurrekontu bateratuaren emaitza (13. or.).

V.3. 2019ko ekitaldiko diruzaintzako gerakin bateratuaren egoera-orria (13. or.).

V.4. 2019ko abenduaren 31ko balantze-egoera bateratua (14. or.).

VI. Konklusioak eta gomendioak (15. or.).

VI.1. Aurrekontu orokorra (15. or.).

VI.2 Udalaren egoera ekonomiko-finantzario bateratua 2019-12-31n (16. or.).

VI.3. Aurrekontu-egonkortasuneko eta finantza-iraunkortasuneko helburuak betetzea (17. or.).

VI.4. Aurreko ekitaldietako gomendioen jarraipena (18. or.).

VI.5. Kudeaketa-alor garrantzitsuak (18. or.).

Behin-behineko txostenari aurkeztutako alegazioak (34. or.).

Behin-behineko txostena dela-eta aurkeztutako alegazioei Kontuen Ganberak emandako erantzuna (35. or.).

Eranskina: Iruñeko Udalaren urteko kontu bateratuaren oroitidazkia, 2019ko abenduaren 31ri dagokiona.

(Oharra: Aipatutako eranskina foru parlamentarien esku dago Agora aplikazioan eta honako web helbidean:

www.cfn Navarra.es/camara.comptos).

LABURPEN EXEKUTIBOA

Kontuen Ganberak Iruñeko Udalaren 2019ko ekitaldiko Kontu Orokorrak fiskalizatu ditu.

Honako hauek izan dira gure lanaren konklusio nagusiak:

- Udalaren Kontu Orokorrak, oro har, aplikatzekoak diren kontabilitate- eta aurrekontu-printzipioen arabera egindako eragiketen multzoa islatzen du, udal-montepioaren etorkizuneko betebeharren hornidurari dagokion salbuespena izan ezik.
- 2019ko ekitaldiko jarduerak, aurrekontu- eta finantza-eragiketak eta urteko kontuetan islatutako informazioa, egindako lanaren norainokoa kontuan hartuta, bat datoz, alderdi esanguratsu guztietan, funts publikoen kudeaketari aplikatzekoa zaion araudiarekin; horretan salbuespena dira indarrean zeuden kontratuei lotutako prestazioengatik ordaindutako gastuari dagokiona eta aurretiatzko esku-hartze mugatuari dagokiona.
- Udalak aurrekontu-egonkortasunaren eta finantza-iraunkortasunaren arauak bete ditu, baina gastu-arauan ezarritako muga gainditu du. Hala ere, gaur egun egonkortasun-arau fiskalak etenda daudenez, ez da beharrezkoa dagokion plan ekonomiko-finantzarioa egitea.
- Udalaren 2019ko abenduaren 31ko finantza-egoera egonkorra eta saneatua da, haren adierazle ekonomiko eta finantzario nagusiek agertzen duten bezala. Adierazle horiek hobera egin dute aurreko ekitaldiarekin alderatuta. Azken urteetan bilakaera positiboa izan dela egiaztatu da, baina analisi honetan kontuan hartu behar dira COVID-19ak 2020ko ekitaldiko diru-sarrera eta gastuetan izan ditzakeen eragin negatiboak, adierazle horietan guztietan ondorioak izanzen baitituzte.
- Langileen arloan, udalean hutsik dauden lanpostuak plantillako 1.629 lanpostuen ehuneko 45 dira, eta horietatik ehuneko 80 aldi baterako beteta daude. 2019an 133 lanposturen lan-eskaintza publikoa onetsi da: 38 lanpostu ordezte-tasaren babespean eta 85 lanpostu enplegua egonkortzeko bideari dagozkionak. Hala ere, kasuan kasuko deialdiak egiten joan beharko da, dagoen behin-behinekotasuna murrizteko.
- Kontratazio-prozedurak, oro har, kontratu-esparruaren arabekoak dira. Hala ere, uste dugu beharrezkoa dela prozedura horien denbora-plangintza egokia egitea, kontratuen gehieneko indarraldia ez gainditzeko.
- Osoko Balorazio-ponentzia oraindik ere ez da onetsi, nahiz eta Ganbera honek behin eta berriz hura onestea gomendatu duen.

I. SARRERA

Kontuen Ganberak, bera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeari eta 2020rako jarduketa-programari jarraituz, Iruñeko Udalaren 2019ko ekitaldiko Kontu Orokorra fiskalizatu du.

Txostenak sei atal dauzka, sarrera hau barne. Bigarrenean, udalaren datu esanguratsuenak deskribatzen ditugu; hirugarrenean, gure fiskalizazioaren helburuak eta norainokoa identifikatzen ditugu; laugarrenean, udalaren 2019ko ekitaldiko Kontu Orokorri buruzko iritzia ematen ditugu; horren laburpena bosgarren atalean jasotzen da. Seigarren atalean, honako gai hauei buruz lortutako konklusio eta gomendio batzuk ematen ditugu: udalaren aurrekontu- eta finantza-egoera, aurrekontu-egonkortasuneko eta finantza-iraunkortasuneko printzipioen betetzea, aurreko txostenetako gomendioen jarraipena eta kudeaketa-alor garrantzitsuenak.

Txostenak eranskin bat dauka, Iruñeko Udalaren 2019ko abenduaren 31ko kontu bateratuen oroitidazkiari dagokiona.

Azterketa lana 2020ko ekaina eta urria bitartean egin du auditoretzako hiru teknikarik eta auditore batek osatutako lantalde batek, eta Kontuen Ganberako zerbitzu juridiko, informatiko eta administratiboen lankidetzaren ere izan dute.

Jarduketa horren emaitzak Iruñeko Udaleko alkateari eta alkate ohiari jakinarazi zitzaizkien, egokitzat jotzen zituzten alegazioak aurkez zituzten, Nafarroako Kontuen Ganbera arautzen duen 19/1984 Foru Legearen 11.2 artikuluan ezarritakoari jarraituz.

Emandako epean, Iruñeko Udaleko alkateak alegazioak aurkeztu ditu.

Eskerrak eman nahi dizkiegu udaleko, haren erakunde autonomoetako, enpresa publikoetako eta fundazioko langileei, lan hau egiteko emandako laguntzarengatik.

II. IRUÑEKO UDALA

Iruñak, Nafarroako hiriburuak, 2019ko urtarrilaren 1ean 201.653 biztanle zituen (106.337 emakume eta 95.316 gizon), eta 25,1 Km²-ko azalera dauka.

Udal antolamendua, besteak beste, honako organo hauek osatzen dute: Udalbatza, zeina ordezkari politikoaren organo gorena baita, Tokiko Gobernu Batzarra eta Alkatetza.

2019an, udalaren egitura administratiboa bederatzi alorrek osatzen dute, Alkatetza barne. Gainerako alorrak zinegotzi ordezkarien menpekoak dira.

Udalak, zerbitzu publikoak kudeatzeko, ondoko enteak sortu ditu:

- Erakunde autonomoak (aurrerantzean, EEAA)

Udalaren haur eskolak: haur eskolen zerbitzuaren kudeaketa.

Hirigintzaren Udal Gerentzia: Iruñeko udalerraren hirigintzaren kudeaketa.

- Merkataritza-sozietateak


Udalak partaidetzaren gehiengo dauka honako merkataritza-sozietateetan:

Enpresa	Partaidetza (%)	Xede soziala
Comiruna SA	100	Txikizkako merkatuak
Pamplona Centro Histórico SA	100	Hirigune historikoaren hirigintza
Iruñeko Udalaren Energia Operadorea SL	100	Argindarra merkaturatu eta ekoiztea
Animsa SA	77,69	Udal informatika.
Mercairuna SA	51	Handizkako merkatuak

- Gayarre Antzokiaren Fundazioa, antzoki hori kudeatzeko eta administratzeko.

Gainera, Erruki Etxearen Fundazioa, hirugarren adinekoei laguntza ematen diharduena, udalari lotuta dago orain dela 300 urte baino gehiago, baina fundazio pribatu bat da.

Udalaren eta haren mendeko erakundeen osaera honako irudi honetan ikusten da:



Udalaren eta haren menpeko enteen datu ekonomiko eta langileei buruzko datu nagusiak honako hauek dira 2019ko ekitaldiaren itxieran:

- Administrazioaren sektore publikoa

Entitatea	Aitortutako eskubideak	Aitortutako betebeharrak	Langileak, 2019-12-31n
Udala	212.167.018	197.992.496	1.686
Haur Eskolak	8.078.052	8.872.409	218
Hirigintzako Gerentzia	3.958.903	5.787.086	25
- Bateratzearen doitzeak	-8.323.101	-8.323.101	-
Bateratua, guztira	215.880.872	204.328.890	1.929

2019an, udalak 6,38 milioiko ekarpena egin zien Haur Eskolei, eta 1,85 milioiko ekarpena, berri, Hirigintzako Gerentziari.

- Merkataritza-sozietateak

Sozietate publikoa	Diru-sarrerak	Gastuak	Ekitaldiko emaitza	Batez besteko plantilla, 2019
Comiruña SA	503.822	409.326	94.496	6
Pamplona Centro Histórico SA	651.015	1.008.958	-357.943	3
Iruñeko Udalaren Energia Operadorea SL (*)	-	-	-	-
Animsa	7.324.463	7.317.755	6.708	104
Mercairuña SA	1.287.199	1.096.302	190.897	13

(*) *Jarduerarik gabe*

- Fundazioak

Fundazioa	Diru-sarrerak	Gastuak	Ekitaldiko emaitza	Batez besteko plantilla, 2019
Gayarre Antzokia	2.130.918	2.153.982	-23.064	15

Udala, halaber, Iruñerriko Mankomunitatean sarturik dago, zeinak honako zerbitzu hauek ematen baititu: uraren ziklo integralarenak, hiri-hondakin solidoen kudeaketa eta tratamenduarenak, eskualdeko hiri-garraioarena. Haren alde aitortutako gastua 2,6 milioikoa izan da 2019an.

Udalak ematen dituen zerbitzu publikoak eta horiek emateko modua honako hauek dira:

Zerbitzua	Zuzeneko kudeaketa		Zeharkako kudeaketa		Mankomunitatea
	Udala	EEAA	Enpresa publikoa	Zerbitzu-emakidarako kontratua	
Argiteria publikoa	X				X
Hilerria	X				
Hiri-hondakinak bildu eta tratatzea					X
Kale-garbiketa	X				X
Uraren ziklo integrala					X
Estolderia	X				
Parke publikoa	X				X
Liburutegia-ludoteka	X				
Gizarte zerbitzuak	X				
Kirol instalazioak	X				X
Bidaiarientzako hiribarruko garraio kolektiboa.					X
Hirigintza	X	X	X		
Udaltzaingoa	X				
Ingurumena	X				X
Kulturaren sustapena eta kultur ekipamenduak	X				X
Ikastetxe publikoak mantentzea	X				
Merkatua			X		
Berdintasunaren sustapena	X				
Turismo-jardueraren sustapena	X				
Merkataritza ibiltaria	X				
0-3 urtekoen ikastetxeak		X			

2019an udalari eta haren erakunde autonomoei aplikatzekoa zaion arau-esparrua honako hauek osatzen dute, funtsean: Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legea; Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea; Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legea, eta Aurrekontu-egonkortasunari eta Finantza-iraunkortasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoa, bai eta araudi sektorial indarduna ere.

III. FISKALIZAZIOAREN HELBURUAK ETA NORAINOKOA

Udalaren 2019ko ekitaldiko finantzei eta legezkotasun-betetzeari buruzko fiskalizazioa egin da, honako honi buruzko iritzia emateko:

- Ea Kontu Orokorrak, alderdi esanguratsu guztietan, irudi fidela ematen duen 2019ko abenduaren 31ko ondareari, finantza-egoerari, aurrekontu-likidazioari eta emaitza ekonomikoari buruz, aplikatzekoa den arau-esparruari jarraituz eta, bereziki, bertan jasota dauden kontabilitate-eta aurrekontu-printzipio eta -irizpideei jarraituz.
- Ea 2019ko ekitaldian udalak eta haren menpeko enteek egindako aurrekontu- eta finantza-jarduerak eta -eragiketak eta Kontu Orokorrean jasotako informazioa bat datozen, alderdi esanguratsu guztietan, funts publikoen kudeaketari aplikatu beharreko araudiarekin.
- Ea 2018ko ekitaldiari buruzko fiskalizazio-txostenean emandako gomendioak bete diren.

Aurreko iritzia emateaz gainera, lanak barne hartu du 2019rako finkatutako aurrekontu-egonkortasuneko eta finantza-iraunkortasuneko helburuen betetze-maila berrikustea.

Halaber, kanpoko profesionalek EEAAetan, enpresa publikoetan eta Gayarre Antzokia udal fundazioan egindako auditoretzak aztertu dira.

Fiskalizazioaren norainokoak Iruñeko Udalaren 2019ko Kontu Orokorra hartzen du; honako hauek osatzen dute kontu hori:

- Udalaren eta haren erakunde autonomoen kontua.
 - a) Aurrekontu-likidazioaren espedientea.
 - b) Ekonomia-, ondare- eta finantza-egoeraren espedientea, zeina egoera-balantzeak eta galera-irabazien kontuak osatzen baitute.
 - c) Eranskinak: diruzaintzako egoera-orria, etorkizunerako hitzartuta dauden gastuen eta diru-sarreraren egoera-orria, balioen egoeraren egoera-orria eta mugimendua, eta tasa eta prezio publikoekin finantzatutako zerbitzuen kostuei buruzko oroitidazkia.
- Entitateak partaidetza guztiak dituen merkataritza-sozietateen kontuak.
- Kontu orokorraren eranskinak.

Fiskalizazioaren denbora-norainokoa 2019ko ekitaldiari dagokio, baina beste ekitaldi batzuei buruzko beharrezko egiaztapenak egin dira, ezarritako helburuak hobeki lortzeko.

Legeria betetzeari dagokionez, norainokoa txosten honen VI. atalean aipatzen diren laginetan berrikusitako eragiketei dagokie.

IV. IRITZIA

Iruñeko Udalaren 2019ko ekitaldiko Kontu Orokorra fiskalizatu dugu. Haren kontabilitatearen egoera-orriak laburbilduta jaso ditugu txosten honen V. atalean.

Udalaren erantzukizuna

Kontu-hartzailletza da kontu orokorra osatzeko ardura duena. Kontua halako moduz egin behar du non leialki irudikatuko baititu udalaren aurrekontu-likidazioa, ondarea, emaitzak eta finantza-egoera, aplikatzekoa den finantza-informazio publikoari buruzko arau-esparruarekin bat; erantzukizun horrek hartzen ditu iruzurraren edo akatsen ondoriozko ez-betetze materialetatik libre dagoen Kontu Orokorra egin eta aurkezteko beharrezkoa den barne kontrolaren kontzeptzioa, ezarpena eta mantentzea.

Udalbatzak 2020ko azaroaren 5ean onetsi zuen Kontu Orokorra.

Udalak bermatu behar du ezen urteko kontuek erakusten dituzten jarduerak, aurrekontu- nahiz finantza-eragiketak eta informazioa bat datozela aplikatu beharreko arauarekin, eta halaber ezarri behar ditu helburu horretarako beharrezkotzat jotzen dituen barne-kontrolako sistemak.

Nafarroako Kontuen Ganberaren erantzukizuna

Gure erantzukizuna da iritzi bat adieraztea erantsitako kontu orokorraren fidagarritasunari buruz eta egin diren eragiketen legezotasunari buruz, gure fiskalizazioan oinarrituta

Horretarako, hura egin dugu Kanpo Kontrolako Erakunde Publikoek erabakitako funtsezko fiskalizazio-printzipioen arabera, eta, zehazki, finantza-fiskalizazioari buruz ISSAI-ES 200 delakoan ezarritakoen arabera, bai eta betetzearen fiskalizazioari buruzkoa den ISSAI-ES 400 delakoan ezarritakoen arabera ere; halaber, kanpo kontrolako organoen fiskalizazioari buruzko gida praktikokoak erabili ditugu. Printzipio horiek eskatzen dute etikaren arloko eskakizunak bete ditzagula, bai eta fiskalizazioaren plangintza eta exekuzioa egin ditzagula ere, honako helburu honekin: arrazoizko segurtasun bat lortzea Kontu Orokorrean akats materialik ez egoteaz, eta finantzen egoera-orrietan islatutako jarduketak, finantza-eragiketak eta informazioa, alderdi adierazgarri guztietan, arau indardunen arabera izateaz.

Fiskalizazio batek eskatzen du prozedura batzuk aplikatu ditzagula auditoretza-ebidentzia bat lortzeko zenbaterokoei eta Kontu Orokorrean adierazitako informazioari buruz, bai eta eragiketen legezotasunari buruz ere. Hautatutako prozedurak auditorearen irizpidearen arabera dira, horren barne dela arriskuaren balorazioa, hala iruzur edo errakuntzaren ondorioz kontu orokorrean akats materialak izatearen arriskuarena nola lege-urraketa muntadunak egotearen arriskuarena. Arriskuari buruzko balorazio horiek egiterakoan, auditoreak barne kontrola hartzen du kontuan — entitateak kontu orokorrak egin ditzan garrantzitsuak baita— inguruabarren arabera auditoretza-prozedura egokiak diseinatze aldera, eta ez entitatearen barne kontrolaren eraginkortasunari buruzko iritzia emateko xedez.

Auditoretza batek barne biltzen du, era berean, aplikatutako kontabilitate-politiken egokitasunaren eta arduradunek egindako kontabilitate-estimazioen arrazoizkotasunaren ebaluazioa, bai eta Kontu Orokorrean aurkeztearen ebaluazioa ere, oro har.

Gure ustez, lortu dugun auditoretza-ebidentziak oinarri nahikoa eta egokia eskaintzen du finantzen eta betetzearen gaineko gure fiskalizazio-iritzia funtsezko.

IV.1 AUDITORETZA FINANTZARIOKO IRITZIA

Iritziaren oinarria, salbuespenekin

Balantzean ez da erregistratu udal montepioari atxikitako funtzionarioen pentsioei buruzko etorkizuneko betebeharren hornidura. Udalak, informazio gisa, 2058ra arte aurreikus daitezkeen fluxuen egungo balio garbiaren zenbatespena jasotzen du oroitidazkian, 217,8 milioikoa.

Auditoretza finantzarioko iritzia, salbuespenekin.

Gure iritzian, "Iritziaren oinarria, salbuespenekin" paragrafoan azaldutako egitatearen eraginengatik ez bada, erantsitako Kontu Orokorrak irudi zehatza erakusten du alderdi esanguratsu guztietan, udalaren ondareari eta 2019ko abenduaren 31ko finantza-egoerari dagokienez Hala-ber, haren emaitza ekonomiko eta aurrekontuko irudi zehatza ematen du, data horretan amaitutako urteko ekitaldiari dagozkionak, aplikatzekoa den informazio finantzario publikoari buruzko lege-esparruari eta, bereziki, bertan jasotako kontabilitateko printzipio eta irizpideei jarraituz betiere.

Azpimarra egiteko paragrafoa

Arreta deitu nahi dugu urteko kontuetan jasotako honako alderdi hauei buruz, zeinek eraginik ez baitute emandako iritzian:

- Aurrekontu-emaitza doituia 12,69 milioikoa da, 2018koa baino % 21 handiagoa.
- Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina 21,91 milioikoa da, eta ehuneko 43 egin du gora aurreko ekitaldikoarekin alderatuta.
- Zor bizia 54,76 milioikoa da, eta % 14 jaitsi da 2018koarekin alderatuta; zorpetze maila, berriz, diru-sarrerara arrunten % 26koa da.
- Entitateak 13,16 milioiko finantzaketa-gaitasuna lortu du 2019an.

Azken batean, udalaren eta haren erakunde autonomoen finantza-egoerak hobera egin du adierazleetan, oro har. Hala eta guztiz ere, adierazi behar dugu COVID-19ak sortutako egoerak ez duela eraginik izan 2019ko urteko kontuetan, baina Iruñeko Udalaren eta haren erakunde autonomoen egoera ekonomiko-finantzarioaren azterketa egoki batek eskatzen du inguruabar hori ere kontuan hartzea.

Kontuen oroitidazkiak diru-sarreretan eta gastuetan izan daitezkeen eragin ekonomikoen berri ematen du; funtsean, honako hauek dira: diru-sarrerak sei milioitan murrizteko aurreikuspena (diru-sarreraren ehuneko hiru, gutxi gorabehera), eta gastuetan, berriz, 5,1 milioiko talka-plan bat onestea, baliogabetutako, etendako edo murriztutako kontratuak eta neurri sozialak jasoko dituenak. Hori guztia, kontuan hartuta gaur egun ezin dela osasun-krisi horren benetako eragina bere osotasunean ebaluatu; izan ere, aurreikusten da krisiak eragin nabarmena izanen duela aipatutako adierazleetakoz batzuetan.

IV.2. LEGERIA BETETZEARI BURUZKO IRITZIA

Iritziaren oinarria, salbuespenekin

- Udalak 7 milioi euroko gastuak ordaindu ditu, zerbitzu-prestazioei dagozkienak, kontratuen gehieneko indarraldia igaro ondoren.

- Aurretiatzko esku-hartze mugatuak ez ditu betetzen Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legearen aurreikuspenak, arrazoi hauengatik:

- a) Udalbatzak ez ditu zehaztu kudeaketa-prozesuan garrantzia duten alderdiak, zeinak aurretiatzko kontu-hartze mugatuaren bidez egiaztatu behar baitira.

- b) Ez da egiten aurretiatzko esku-hartze mugatua eragin zuten egintza, dokumentu edo espedienteen lagin adierazgarri baten gaineko ondorengo esku-hartze osoa.

Legezketasuna betetzeari buruzko iritzia, salbuespenekin

Gure iritiz, "Iritziaren oinarria, salbuespenekin" paragrafoan azaldutako egitateen eraginarengatik ez bada, eta berrikusitako lanaren norainokoa kontuan hartuta, udalaren 2019ko ekitaldiko jarduerak, finantza-eragiketak eta sozietatearen egoera-orri finantzarioetan azaldutako informazioa bat datoz, garrantzizko alderdi guztietan, aplikatzekoak diren arauekin.

V. EGOERA-ORRI FINANTZARIO BATERATUAK**V.1. 2019ko EKITALDIKO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOAREN EGOERA-ORRI BATERATUA**

(Udala eta erakunde autonomoak)

Gastu-aurrekontuaren betetzea Sailkapen ekonomikoa

Gastuak	Hasierako kreditua	Aldaketa	Behin betiko kreditua	Aitortutako betebeharrak	Ordainketak	% Betetzea	% Ordainketak
1. Langileak	94.206.882	4.316.900	98.523.782	98.233.262	98.011.786	100	100
2. Ondasun arruntak	72.754.445	896.098	73.650.543	70.332.557	57.909.899	95	82
3. Finantza-gastuak	875.000	-110.000	765.000	587.445	587.445	77	100
4. Transferentzia arruntak	11.819.484	115.842	11.935.326	11.518.168	10.516.540	97	91
6. Inbertsioak	3.801.310	21.534.136	25.335.446	13.855.494	8.668.743	55	63
7. Kapital-transferentziak	73.460	1.659.870	1.733.330	859.299	533.996	50	62
8. Aktibo finantzarioak	277.200	0	277.200	142.067	142.067	51	100
9. Pasibo finantzarioak	8.814.000	0	8.814.000	8.800.598	8.800.598	100	100
Guztira	192.621.781	28.412.846	221.034.627	204.328.890	185.171.074	92	91

Diru-sarreraren aurrekontuaren betetzea. Sailkapen ekonomikoa

Diru-sarrerak	Hasierako aurreikuspena	Aldak.	Behin betiko aurreikuspena	Aitortutako eskubideak	Kobrantzak	% Betetzea	% Kobrantzak
1. Zuzeneko zergak	53.836.000	0	53.836.000	57.822.254	54.174.628	107	94
2. Zeharkako zergak	6.073.573	0	6.073.573	9.392.786	7.356.956	155	78
3. Tasak, prezio publikoak eta beste diru-sarrera batzuk	28.877.600	0	28.877.600	33.488.036	28.397.010	116	85
4. Transferentzia arruntak	97.769.908	2.157.000	99.926.908	104.198.593	104.058.970	104	100
5. Ondarearen bidezko diru-sarrerak eta herri-aprobetxamenduak	2.930.500	0	2.930.500	2.971.535	2.362.492	101	80
6. Inbertsio errealak besterentzea	0	1.001.772	1.001.772	1.876.725	1.463.471	187	78
7. Kapital-transferentziak	2.757.000	2.930.567	5.687.567	5.978.530	5.965.678	105	100
8. Aktibo finantzarioak	377.200	13.509.848	13.887.048	152.413	39.664	1	26
9. Pasibo finantzarioak	0	8.813.659	8.813.659	0	0	0	0
Guztira	192.621.781	28.412.846	221.034.627	215.880.872	203.818.869	98	94

V.2. 2019ko EKITALDIKO AURREKONTU BATERATUAREN EMAITZA

(Udala eta erakunde autonomoak)

Kontzeptua	2018	2019
Aitortutako eskubide garbiak	213.322.712	215.880.872
Aitorturiko betebeharrak garbiak	-203.986.998	-204.328.890
Aurrekontu-emaiza	9.335.714	11.551.982
Doikuntzak		
Finantzaketaren desbideratze positiboa	-3.964.214	-3.586.515
Finantzaketaren desbideratze negatiboa	713.809	1.657.124
Diruzaintzako gerakinarekin finantzatutako gastuak	4.387.898	3.064.062
Aurrekontu-emaiza doituia	10.473.207	12.686.654

V.3. 2019ko EKITALDIKO DIRUZAINZAKO GERAKIN BATERATUAREN EGOERA-ORRIA

(Udala eta erakunde autonomoak)

Kontzeptua	2018	2019	Aldea (%)
(+) Kobratzeko dauden eskubideak	23.770.057	18.282.305	-23
(+) Diru-sarreraren aurrekontua: Aurtengo ekitaldia	13.077.119	12.079.145	
(+) Diru-sarreraren aurrekontua: Itxitako ekitaldiak	27.587.138	21.622.292	
(+) Aurrekontuz kanpoko diru-sarrerak	72.796	242.749	
(+) Ordainketen itzulketak	124	124	
(-) Nekez kobratzeko eskubideak	-16.953.826	-15.633.934	
(-) Aplikatzeko dauden diru-sarrerak	-13.293	-28.070	
(-) Ordaintzeko dauden betebeharrak	-33.160.457	-31.441.610	-5
(-) Gastuen aurrekontua: Aurtengo ekitaldia	-20.599.753	-19.157.816	
(-) Gastuen aurrekontua: Itxitako ekitaldiak	-3.682.255	-2.532.770	
(-) Aurrekontuz kanpoko gastuak	-8.698.854	-9.615.374	
(-) Egiteke dauden itzulketak	-186.571	-142.628	
(-) Aplikatzeko dauden gastuak	6.976	6.978	
(+) Diruzaintzako funts likidoak	53.922.464	66.434.589	23
(+) Finantzaketaren desbideratze metatu negatiboak	21.253.675	22.087.207	4
Diruzaintzako gerakina, guztira	65.785.739	75.362.490	15
Diruzaintzako gerakina, finantzaketa atxikia duten gastuak direla-eta	22.423.869	25.195.458	12
Diruzaintzako gerakina, baliabide atxikiak direla-eta	28.072.795	28.252.109	1
Diruzaintzako gerakina, gastu orokorretarakoa	15.289.075	21.915.014	43

V.4. 2019ko ABENDUAREN 31ko BALANTZE-EGOERA BATERATUA

(Udala, erakunde autonomoak eta Comiruña SA eta Pamplona Centro Histórico SA udal enpresak)

Deskribapena	2018. urtea	2019. urtea	Deskribapena	2018. urtea	2019. urtea
A Ibilgetua	1.214.020.964	1.237.525.109	A Funts berekiak	1.224.184.407	1.255.822.111
1 Ibilgetu materiala	539.883.480	557.447.025	1 Ondarea eta erreserbak	802.176.463	806.536.336
2 Ibilgetu ez-materiala	22.663.227	22.732.270	2 Ekitaldiko emaitza ekonomikoa (etekina)	0	25.512.242
3 Erabilera orokorrerako azpiegiturak eta ondasunak	642.936.861	648.815.254	3 Kapitaleko dirulaguntzak	422.007.944	423.773.533
4 Herri-ondasunak	0	0	B Arriskueterako eta gastu- etarako hornidurak	0	0
5 Ibilgetu finantzarioa	8.537.396	8.530.560	4 Hornidurak	0	0
B Zenbait ekitalditan banatu beharreko gastuak	0	0	C Epe luzeko hartzeko- dunak	65.631.619	60.522.352
6 Deuseztatu beharreko gastuak	0	0	4 Jesapenak, maileguak eta jasotako fidantzak eta gordailuak	65.631.619	60.522.352
C Zirkulatzaila	110.954.856	112.364.405	D Epe laburreko hartzeko- dunak	35.159.795	33.545.051
7 Izakinak	9.264.094	9.618.183	5 Itxitako aurrekontuetako hartzekodunak eta aurrekontuez kanpokoak	35.146.502	33.516.981
8 Zordunak	40.972.090	34.227.022	6 Aplikatzeko dauden partidak eta aldizkatzearen ondoriozko doitzeak	13.293	28.070
9 Kontu finantzarioak	55.983.635	68.511.462			
10 Finantzaketa-egoera iragankorrak, aldizkatzeak eragindako doitzeak. Aplikatzeko.	8.605	7.738			
11 Aplikatzeko dagoen emaitza (ekitaldiko galera)	4.726.432	0			
Aktiboa, guztira	1.324.975.820	1.349.889.514	Pasiboa, guztira	1.324.975.820	1.349.889.514

VI. KONKLUSIOAK ETA GOMENDIOAK

Egindako fiskalizazioaren atal gisa, ondoren ohar eta iruzkin batzuk gehitu ditugu, bai eta Ganbera honen ustez fiskalizazio txosten honen hartzaile eta erabiltzaileentzat interesgarri gerta daitekeen informazio gehigarriren bat ere.

Orobat, fiskalizazio-txostenaren gaineko iritziaren salbuespenei buruzko informazio xehea gehitu da.

Halaber, txostenak jasotzen ditu Ganbera honen ustez udalaren eta haren mendeko enteentzako kudeaketa ekonomiko-administratiboa hobetzeko beharrezkoak diren gomendioak.

VI.1. AURREKONTU OROKORRA

Udalaren eta haren erakunde autonomoen 2019rako hasierako aurrekontu bateratuak, 2018ko aurrekontuaren luzapena denak, 192,62 milioi euroko gastuak eta diru-sarrerak biltzen zituen hasierako aurreikuspenetan.

28,41 milioi aurrekontu-aldaketa batzuk eginda —hasierako kredituen ehuneko 15 egiten dute—, behin betiko aurreikuspenak 221,03 milioiokoa izan ziren. Aldaketen zenbateko osoaren ehuneko 76 inbertsio errealean 6. kapituluari dagokio.

Aurrekontu-likidazioa

2019an, gastuak 204,33 milioiokoa izan dira, eta ehuneko 92ko betetze-maila izan dute. Gastu horiek 2018koak baino ehuneko 0,2 handiagoak izan dira.

Diru-sarrierei dagokienez, 2019an 215,88 milioiak aitortu ziren, ehuneko 98ko betetze-mailarekin. Aurreko ekitaldiarekin alderatuta, diru-sarrerak ehuneko bat igo dira.

Taula honetan ageri dira udalaren eta haren erakunde autonomoen gastuen xedea eta finantzaketa, ehunekotan:

Gastuaren izaera	Ehunekoa	Finantzatze-iturria	Ehunekoa
Langileak	48	Tributu bidezko diru-sarrerak	42
Bestelako gastu arruntak	41	Transferentziak	51
Inbertsio errealeak	7	Ondare bidezko diru-sarrerak eta bestelako diru-sarrerak	7
Kapital-transferentziak	0		
Pasibo finantzarioak	4		

Gastu arruntek gastu guztien ehuneko 89 egiten dute. Horietatik, langile-gastuak gastatutako guztiaren ehuneko 48 dira; inbertsioak, berriz, ehuneko zazpi; azkenik, ehuneko lau pasibo finantzarioei dagokie.

Diru-sarretan, tributu-jatorrikoek guztizkoaren ehuneko 42 egiten dute, eta transferentziek, ehuneko 51. Gainerako ehuneko zazpitik handiena ondarezko diru-sarrierei dagokie.

Ondoren, 2018ko eta 2019ko ekitaldietako aurrekontu-likidazioarekin lotutako adierazle guztien alderaketa bat erakusten dugu:

Adierazleak	2018	2019	Aldea (%)
Aitortutako eskubideak, guztira	213.322.712	215.880.872	1
Aitortutako betebeharrak, guztira	203.986.998	204.328.890	0,2
Diru-sarrera arruntak (1. kapitulutik 5.era)	202.706.201	207.873.204	3
Funtzionamendu-gastuak (1., 2. eta 4. kapituluak)	178.290.032	180.083.987	1
Kapitaleko diru-sarrerak	10.436.864	7.855.254	-25
Kapitaleko gastuak	16.079.132	14.714.793	-9
Saldo ez-finantzarioa	18.113.496	20.342.234	12
Aurrekontu-emaizta doitua	10.473.207	12.686.654	21

Aurreko bilakaeratik, honako hau nabarmendu behar dugu:

- Diru-sarrera arruntak ehuneko hiru igo dira; kapitalekoak, berriz, ehuneko 25 jaitsi dira. Dena den, termino absolutuetan, nabarmenagoa izan da diru-sarrera arrunten gorakada (5,2 milioiak) kapitaleko diru-sarreraren beherakadaren aldean (2,6 milioiak).
- Funtzionamendu-gastuak ehuneko bat igo dira, eta kapital-gastuak ehuneko bederatzia jaitsi dira. Kopuru absolutuetan, hazkundea 1,8 milioikoa izan da; jaitsiera, berriz, 1,4 milioikoa.
- Aurrekontu-emaizta doitu, 12,69 milioikoa, ehuneko 21 igo da 2018arekin alderatuta, eta 2,21 milioiko igoera izan du kopuru absolutuetan.

VI.2 UDALAREN EGOERA EKONOMIKO-FINANTZARIO BATERATUA 2019-12-31n

Hurrengo taulan, 2019ko ekitaldiari buruzko adierazle ekonomiko-finantzario batzuk erakusten ditugu, bai eta aurreko ekitaldikoekiko alderaketa ere:

Adierazleak	2018	2019	Aldea (%)
Aurrezki gordina	24.416.169	27.789.218	14
Finantza-zama	9.457.930	9.388.043	-1
Aurrezki garbia	14.958.240	18.401.174	23
Finantza-zamaren adierazlea	% 4,7	% 4,5	-3
Aurrezki gordinen diru-sarrera arrunten gainean zenbat egiten duten (%)	12	13	11
Zor bizia	63.556.866	54.756.268	-14
Zorpetze-maila (zor bizia/diru-sarrera arruntak)	% 31	% 26	-16
Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina	15.289.075	21.915.014	43
Autonomia fiskala (tributuak/aitortutako eskubide garbiak)	% 41	% 42	1
Kobratzea zalantzakoa den zordunen indizea (kobratzea zalantzazkoa den zordunen saldoa/kobratzeko dauden zordunak)*100	% 42	% 46	11

Aurreko taulatik, honako alderdi hauek aipatu behar ditugu:

- 2019an, aurrezki garbia 18,4 milioikoa izan zen, eta finantza-karga 9,4 milioikoa. Horrek adierazten du udalak baliabide nahikoak sortu zituela funtzionamendu-gastuei eta finantza-kargari aurre egiteko; azken hori ehuneko bat murriztu zen, eta aurrezki garbia ehuneko 23 handitu zen aurreko ekitaldiarekin alderatuta.
- Zor bizia 54,76 milioikoa da, eta % 14 jaitsi da aurreko urtekoarekin alderatuta; zorpetze maila, berriz, diru-sarrera arrunten % 26koa da (aurreko urtean ehuneko 31koa izan zen).
- Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakinak % 43 egin du gora 2018ko datuekin alderatuta, 21,92 milioiko zenbateko positiboarekin.

Azken batean, udalaren finantza-egoera onbideratua da, aurrezki gordinaren eta garbiaren adierazle positiboak ditu, eta zorpetze-maila ehuneko 26 da. Era berean, aurrekontu-emaizta doitu eta diruzaintzako gerakina positiboak dira, eta gora egin dute aurreko ekitaldiarekin alderatuta. Halere, IV. atalean aipatu dugun bezala, kontuan hartu behar da COVID-19aren osasun-krisiak sortutako egoera; izan ere, gastuetan eta diru-sarreretan izanen duen eragina oraindik ezin da zehaztu, baina 2020ko ekitaldian nabarmen eraginen du aztertutako adierazleetako batzuetan.

VI.3. AURREKONTU-EGONKORTASUNEN ETA FINANTZA-IRAUNKORTASUNEN HELBURUAK BETETZEA

Aurrekontu-egonkortasunari eta Finantza-iraunkortasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoa aplikatzearen eraginetarako, Kontabilitate Nazionalako SEC 2010 irizpideei jarraituta, honako ente hauek jotzen dira tokiko administrazio publikotzat: udala bera, erakunde autonomoak, merkatukoak ez diren udal sozietateak (Pamplona Centro Histórico SA eta Animsa) eta Gayarre Antzokia Fundazioa.

Administrazio publikotzat hartutako entitateek honako datu hauek izan dituzte:

- Aurrekontuen egonkortasun-printzipioa:

13,16 milioiko finantzaketa-ahalmena sortu dute.

Finantzaketaren gaitasuna/beharra

	Zenbatekoa, 2019
Diru-sarrera ez-finantzarioak	233.929.283
Gastu ez-finantzarioak	213.981.250
Saldo ez-finantzarioa	19.948.033
SEC dela-eta egindako doikuntzak	
Itxitako ekitaldietako eta aurtengo ekitaldiko 1., 2. eta 3. kapituluetakoko diru-sarreraren kobrantzak	-1.638.835
Europar Batasunaren dirulaguntzak	519.401
Transferentzien bateratzea	565.351
Aurrekontuari aplikatzeko dauden eragiketengatik hartzekodunak*	-3.673.974
Ordainketa geroratuengatik doikuntza	570.726
Beste doikuntza batzuk (dirulaguntza aurreratuak)	-3.130.000
Finantzaketa-gaitasuna	13.160.702

(*) Administrazio-kontratatuak gradua aitortzeagatik atzerapenak ere sartzen dira, 3,3 milioikoak.

- Gastu-araua:

2019ko ekitaldiko gastu konputagarria, Ganbera honek doitua, 3,5 milioiko gehieneko gastu-muga baino handiagoa da, eta ez du gastu-araua betetzen, 2019rako baimendutako ehuneko 2,7ko aldakuntza-tasa gainditzen baitu.

Gastu-araua

	Zenbatekoa, 2019
2018ko gastu konputagarri bateratua	167.147.019
% 2,7ko igoera	4.512.970
Diru-bilketaren gutxitze iraunkorra	-58.000
2019rako aurreikusitako gastu-muga	171.601.989
2019ko gastu konputagarri bateratua	175.141.784
2019ko gastuan izandako desbideratzea	-3.539.796

Udalak 2019rako gastu konputagarri bateratuaren kalkuluan 3,56 milioiko igoera iraunkorra sartu zuen, baina gure ustez horrek ez du betetzen AEFILOn aurreikusitakoa, honako arrazoi hauengatik:

Alde batetik, ez da diru-bilketaren etengabeko igoeratzat hartzen Toki Ogasunen Funtsaren gehikuntzatik datorrena, haren zenbatekoa 2,9 milioikoa baita, tributu-sarrerak ez direlako. Bestalde, ezin da kontuan hartu Arrotxapea auzoko aparkaleku-eremu arautu berriaren bilketagatik aurreikusitako igoera, 660.000 eurokoa, 2020ko urtarrilean sartu baitzen indarrean.

- Finantza-jasangarritasunaren printzipioa

a) Zor publikoaren iraunkortasunari dagokionez, printzipio hori bete egiten da, aurrezki garbi positiboa baduelako eta ehuneko 28ko zorra duelako, araudiak ezarritako ehuneko 110eko muga baino askoz txikiagoa.

b) Merkataritza-zorraren jasangarritasunaren baldintza bete egiten da, zeren eta ez baita gainditzen berankortasunari buruzko araudian ezarritako gehieneko epea.

Hornitzaileei ordaintzeko batez besteko epea

Hornitzaileei ordaintzeko batez besteko epea	
Lehenengo hiruhilekoa	26,93
Bigarren hiruhilekoa	25,79
Hirugarren hiruhilekoa	27,20
Laugarren hiruhilekoa	25,18

Iturria: Ogasuneko eta Administrazio Publikoetako Ministerioak argitaratutako datuak.

VI.4. AURREKO EKITALDIETAKO GOMENDIOEN JARRAIPENA

Egiaztatu dugu honako gomendio hau bete egin dela:

- *Kontratu-euskarririk gabeko betebeharrak ordaindu behar diren kasuetan, betearazpenaren oinarrietan izapidetzerako prozedura ezartzea, aberaste bidegabearen teoriaren arabera, organo eskudunak onetsi dezan.*

Lehentasunezkotzat jotzen dugu 2018ko ekitaldiko eta aurreko ekitaldietako fiskalizazio-lanetan emandako gomendio hauek betetzea, oraindik ere ez baitira bete:

- *Kontu-hartzaitzaren barne kontrola areagotzea, kudeaketa ekonomikoa hobetzeko beharrezkoa eta ezinbestekoa den tresna baten gisara, eta hura ezartzea Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legean ezarritako hedadurarekin. Hau da, erabateko fiskalizazioa egitea aurrez fiskalizazio mugatua egin zaien eta udalaren diru-sarreraren barne-kontrola pasa duten gastuen lagin bati buruz kontrol finantzarioa eta eraginkortasunaren kontrola egitea.*

- *Udalbatzak erabakitzea, kudeaketa prozesuan daukaten garrantziari erreparatuta, zein alderdi egiaztatuko diren eduki ekonomikoa duten ekintzen, dokumentuen edo espedienteen alde aurretiko kontu-hartzaitza egiterakoan.*

- *Langileen gastuan sor daitezkeen desbideratzeen gaineko kontrol handiagoa egitea, behar adinako aurrerapenaz eta aurreikuspenarekin izapidetzeko aurrekontuetan egin daitezkeen aldatetarako, hartara, kredituen lotura juridikoaren mailak ez gainditzeko.*

- *“Iruñeko Udaleko eta haren erakunde autonomoetako funtzionario eta administrazio-kontratudunentzako enplegu-baldintzei buruzko 2018-2019 urteetarako akordioa” berrikustea, eta itunak udalaren eskumenekoak diren gaitara mugatzea.*

VI.5. KUDEAKETA-ALOR GARRANTZITSUAK

VI.5.1. Alderdi orokorrak

2019ko aurrekontu-proiektua ez zen onetsi, eta, hori dela-eta, 2018ko ekitaldikoa luzatu zen, Alkatetzaren 2018ko abenduaren 31ko Ebazpenaren bidez. Luzapen espedienteak aurrekontu-kudeaketari buruzko 270/1998 Foru Dekretuan aurreikusitako baldintzak betetzen ditu.

Udalaren eta haren erakunde autonomoen 2019ko aurrekontuen likidazioa Alkatetzaren 2020ko apirilaren 24ko ebazpen batez onetsi zen. Kontu Orokorra Udalbatzak onetsi zuen 2020ko azaroaren 5eko bilkuran.

Kontu Orokorrari buruz egindako berrikuspenetik, honako hau adierazi nahi dugu:

- Eratzen ari zen “Iruñeko Udalaren Energia Operadorea SL” sozietatea gaur egun likidazio-fasean dago, Akziodunen Batzarraren 2020ko uztaileko erabakiaren ondorioz.

- Kontu-hartzaitzak ez du eragozpen-oharrik egin 2019an.

- Balantzean ez da inolako hornidurarik jasotzen udal-montepiotik eratorritako udalaren bete-beharrei dagokienez.

• Ebatzi gabe jarraitzen dute, Hirigintzako Gerentziari dagokionez, kanpoko auditoreen txosteneko gomendioek, ekitaldiaren itxieran likidazioa eta behin betiko kontabilitate-itxiera egiteko duten poligonoei buruzkoek.

2019ko kontuei dagokionez, Haur Eskolak eta Hirigintzako Gerentzia erakunde autonomoen kontuak, Gayarre Antzokia fundazioaren kontuak eta Udalak partaidetzaren gehiengoa duen enpresa publikoen kontuak —Comiruña SA, Pamplona Centro Histórico SA, Animsa eta Mercairuña SA— kanpoko profesionalek ikuskatu dituzte. Haiiek direla-eta aldatu gabeko finantza-iritzia eman da, Gayarre Antzokia Fundazioaren kasuan izan ezik; izan ere, oroitidazkian ez da sartu eragina kuantifikatzea eragozten duten ondorio eta arrazoiei buruzko informaziorik, ez eta COVID-19 koronabirusak eragindako geroko gertaeraren ziurgabetasuna arintzeko faktorerik ere.

Legeria betetzeari buruzko auditoretzari dagokionez, honako hau da iritzia:

a) Langileen arloari dagokionez, ondorioztatzen da aplikatzekoa den araudia bete dela, oro har.

a) Aurrekontuen arloari dagokionez, ondorioztatzen da aplikatzekoa den araudia bete dela, oro har.

c) Kontratazio administratiboei dagokionez, honako gorabehera hauek aurkitu ditugu: Haur-eskoletan, aurreko adjudikaziodunak garbiketa-produktuak hornitzen jarraitu du, dagokion kontratazio-espeditatea egin gabe (44.992 euro). Comiruña SAn 15.000 eurotik gorako ondasunak eta zerbitzuak eskuratu zaizkien bi enpresa aurkitu dira, dagokien lizitazio-prozedura izapidetu gabe (50.200 euro). Azkenik, Gayarre Antzokia Fundazioak bi kontratu ditu amaituta eta ez da lizitazio berria egin (120.000 euro).

Gure gomendioak:

- *Aurrekontua, aurrekontu-likidazioa eta kontu orokorra legez ezarritako epeetan onestea.*
- *Mendeko erakundeen kontratazioen kontrola indartzea, lizitazio berrien plangintza egokia eginez.*
- *Balantzean sartzea udalaren montepiotik eratorritako udalaren betebeharrei buruzko hornidura.*

VI.5.2. Langile-gastuak

Udaleko langileen gastuak 89,72 milioikoak izan ziren, behin betiko kredituen % 100. Ekitaldian sortutako gastu guztien ehuneko 45 egiten dute, eta ehuneko lau igo dira aurreko ekitaldiarekiko.

Aurreko ekitaldikoekiko alderatzea ondoko taulan azaltzen dugu:

Aurrekontu-partida	Aitortutako betebehargarbiak, 2018	Aitortutako betebehargarbiak, 2019	Aldea	Aldea (%) 19/18
Gobernu-organoen oinarrizko ordainsariak eta beste ordainsari batzuk	958.986	991.862	32.876	3
Behin-behineko langileen oinarrizko ordainsariak eta beste ordainsari batzuk	2.018.012	2.078.795	60.783	3
Funtzionarioen oinarrizko ordainsariak	27.549.520	28.426.240	876.720	3
Funtzionarioen ordainsari osagarriak	13.888.576	14.697.667	809.091	6
Langile lan-kontratudun finkoen ordainsariak	1.262.243	1.277.856	15.613	1
Aldi baterako langile lan-kontratudunen ordainsariak	7.027.513	6.238.355	-789.158	-11
Kuota sozialak	11.389.529	13.132.258	1.742.729	15
Pentsioak eta gizarte zerbitzuak	21.100.528	22.134.529	1.034.001	5
Langileen gizarte gastuak	331.814	302.746	-29.068	-9
Familia-osagarria	458.038	443.972	-14.066	-3
Guztira	85.984.759	89.724.279	3.739.520	4

Nabarmentzekoa da kuota sozialak ehuneko 15 igo direla, batez ere Udaltzaingoaren Gizarte Segurantzako kotizazioak 1,17 milioi igo direlako, abenduaren 14ko 1449/2018 Errege Dekretua, erretiro aurreratuko erregimena ezartzen duena, indarrean sartzearen ondorioz, horrek udalak egin beharreko kotizazio-tasa gehigarria dela-eta dakarrenarekin.

Bestalde, pentsioen eta gizarte-prestazioen partida ehuneko bost handitu da, batez besteko erretiro-pentsioa handitzearen ondorioz udal montepioko pentsioengatiko gastua handitu delako.

Era berean, nabarmentzekoa da aldi baterako langileen ordainsariak ehuneko hamaika murriztu direla, batez ere Lantegi-eskolan jarduera txikiagoa egin delako eta Udalaren Etxez Etxeko Arreta Lantaldearen (EEAL) gastua murriztu delako. Kopuru absolutuetan, funtzionarioen ordain-sarrietan gertatutako igoeraren antzekoa da.

Alderdi orokorrak

Egiaztatu dugu, oro har, nominako ordainsari-kontzeptuak behar bezala egozten zaizkiola aurrekontuari.

Langileen gastuen barne-kontrolari dagokionez, Ganbera honek aurreko txostenetan behin eta berriz adierazi duen bezala, udalak ez du nominaren aurretiko esku-hartzerik egin, ez eta geroko kontrolik ere.

Horri dagokionez, 2019ko Kontu Orokorraren esku-hartze txostenak kontrol hori ez egiteko arrazoiak azaltzen ditu, batez ere denbora eskasarekin lotuta daudenak.

Plantilla organikoa

Iruñeko Udalaren Oroitidazkian ageri den informazioaren arabera, 2019ko ekitaldia ixtean honako hauek ziren plantillako lanpostuak:

Langileak	Udala
Plantillako lanpostuak	1.629
Lanpostu beteak	893
Lanpostu hutsak	736
Lanpostu guztien gaineko lanpostu hutsak (%)	45
Betetako lanpostu hutsak	588
Betetako lanpostu hutsak (%)	80
Bete gabeko lanpostu hutsak	148
% Bete gabeko lanpostu hutsak	20

2019an, plantillako lanpostu guztien ehuneko 45 hutsik daude; horietatik, ehuneko 80 aldi baterako beteta daude eta gainerakoek, ehuneko 20k, bete gabe jarraitzen dute.

Plantillako lanpostuen araubide juridikoa honako hau da:

Sailkapena	2018	2019
Behin-behineko langileak.	41	41
Funtzionarioak	1.354	1.356
Lan-kontratudun langileak	234	232
Guztira	1.629	1.629

Plantillako 1.629 lanpostuetatik, ehuneko 83 funtzionario-araubidekoak dira; ehuneko 14, lan-araubidekoak, eta gainerako ehuneko hirua behin-behineko langileak dira.

Egin den berrikuspenetik honako alderdi hauek azpimarratu behar ditugu:

- 2019rako 2018ko plantilla organikoa luzatu egin da, Udaltzarak 2019ko otsailaren 7an adostutako aldatetekin. 2019ko martxoaren 27an Nafarroako Aldizkari Ofizialean (aurrerantzean, NAO) 59. zenbakian argitaratu direnez, behin betiko onetsi dira aldateta horiek. 2019ko irailean, NAO n argitaratu ez diren bi plantilla-aldaketa onetsi ziren.

- 2019ko apirilean, hainbat poliziaren ordainsariak handitu dira, Giza Baliabideen zuzendaria- ren ebazpenaren bidez. Aldaketa horiek ez ziren izapidetu plantilla organikoaren aldaketa gisa, eta ez ziren NAOn argitaratu.

Lan-eskaintza publikoa eta ordezte- eta egonkortze-dataren azterketa

2019ko lan-eskaintza publikoaren (LEP) egoera aztertu dugu, enpleguaren ordezte- eta egon- kortze-tasei dagokienez. Udalak 2019rako LEPa onetsi zuen (2019ko otsailaren 20ko NAOn argi- taratu zen); gero, aldaketa bat egin zitzaion, zeina 2019ko apirilaren 11ko NAOn argitaratu bai- tzen.

Horiek aztertuta, ondoko alderdiak nabarmentzen ditugu:

- LEPak 133 lanpostu hartzen ditu guztira: ordezte-tasa gisa 38 lanpostu jasotzen dira; aldi baterako enpleguaren egonkortze-tasa gisa 85 lanpostu, eta gainerako hamarrak barne- sustapenaren bidez beteko dira.

Espedientean ez da zehaztu LEPea sartutako lanpostu bakoitzerako Estatuko Aurrekontu Orokorren Legean (aurrerantzean, EAOL) ezarritako baldintzak betetzen diren; izan ere, haien zerrenda baino ez da jaso.

Egiaztatu dugu, oro har, enpleguaren ordezte-eta egonkortze-tasa gisa sartutako lanpostu ge- hienek bete egiten zitzutela LEPea sartzeko bete beharreko arau-esparruko baldintzak; halere, egonkortzearen kasuan, gutxienez sei lanpostu hauteman ditugu, aurreko hiru urteetan lanpostu hutsak beteta egotearen baldintza betetzen ez zutenak.

Hala ere, udalak emandako informaziotik ondorioztatzen da 133 lanpostu gehiago ere egonen liratekeela, egonkortasun-tasaren arabera eskain litezkeenak. Giza Baliabideen Alorrak jakinarazi digu plaza horiek ez direla LEPea sartu orain arte, premien alde aurreko azterketa egitea ko- meni delako, batez ere kolektibo ugari jakin batzuen kasuan, eta, halaber, komeni delako deial- diak denboran banatzea, kontuan hartuta aipatutako alorrean zenbateko gaitasuna dagoen ka- suko hautapen-prozesuak kudeatzeko.

- 2016-2019ko lan-eskaintza publikoen jarraipena egin dugu, eta ekitaldiaren amaieran ho- nako egoera hau izanen dute:

Egoera (lanpostuak)	2016	2017	2018	2019	Guztira
Betetakoa	10	22	2	-	34
Egiten ari da	4	13	7	51	75
Ezeztatua	-	2	2	-	4
Egin gabe dago	3	2	5	82	92
Guztira	17	39	16	133	205

Lanpostu guztien ehuneko 81en deialdiak egin gabe daude edo egiten ari dira 2019ko amaie- ran, eta horietatik ehuneko 80 2019ko LEPari dagozkio.

Bestalde, deialdi bakoitzak antzeko lan-karga dakarrela kontuan hartuta, bete beharreko plaza-kopurua edozein izanda ere, 2016-2019ko lan-eskaintza publikoetatik ondorioztatuko lira- tekeen deialdiak aztertu ditugu, eta 2019ko itxieran egoera hau zegoen:

Egoera (deialdia)	2018ko egoera	2019ko egoera
Betetakoa	3	3
Egiten ari da	9	10
Ezeztatua	2	2
Egin gabe dago	53	52
Guztira	67	67

2016-2019ko lan-eskaintza publikoek eraginen lituzketen 67 hautaketa-prozesuetatik, % 78 deitzeke daude. 52 prozesu dira, eta horietatik 47k 2019ko LEPea dute jatorria.

2019an zehar, bai eta 2020ko lehen sei hilekora arte ere, ez da funtsezko aurrerapenik egin deitutako eta oraindik deitzeko dauden hautaketa-prozesuetan. Hori, neurri handi batean, esparru administratibo eta judizialeko hainbat gorabehera juridikorekin lotu daiteke.

Deialdien lagina berrikustea

2019an egindako lau deialdi berrikusi ditugu, eta, oro har, aplikatu beharreko araudiaren arabera garatu dira; hala ere, honako alderdi hauek nabarmentzen ditugu:

- Deialdietako batean, Estatutu Publikoaren Testu Bateginaren (EPTB) 15.6 artikuluan salbu-espenez aurreikusitako prozedura murriztua erabili da, eta espedientean ez da jaso prozedura horren erabileraren justifikaziorik.
- Aztertutako deialdietan ez dago deialdiari eta deialdiaren oinarri arautzaileei buruzko txosten juridikorik.

Langile-gastuaren egiaztapenak

- 2019ko urriko nominari dagozkion oinarrizko soldata gisa eta osagarri gisa langileek jasotako zenbatekoa berrikusi dugu, bajaran egon diren pertsonak salbuetsita. Honako hauek izan dira berrikusitako ordainsariak eta haien zenbatekoak:

Kontzeptua	Zenbatekoa
Oinarrizko soldata	2.003.339
Lanpostu-osagarria:	350.129
Berariazko osagarria	233.657
Mailako osagarria	120.884
Bateraezintasuneko osagarria	91.521
Arrisku bereziko osagarria	57.584
Irakaskuntzako osagarria	26.143
Dedikazio esklusiboko osagarria	15.682
Lanaldiaren luzapeneko osagarria	869
Zuzendaritza postuko osagarria	527
Abendua, guztira	2.900.335

Oro har, udaleko langileen ordainsariak bat datoz plantilla organikoaren arabera betetzen dituzten lanpostuetarako aurreikusten diren mailaren oinarrizko soldatarekin eta osagarriekin.

Dena den, akats hauek ere aipatu behar ditugu:

- Ez da plantilla organikoan sartzen Udalaren Etxez Etxeko Arreta Lantaldearen (EEAL) langileen koordinazio-eginkizunengatikako osagarria, Tokiko Gobernu Batzarrak 2018an hartutako erabakiaren bidez onetsia.
- Plantillan “Irakaskuntza-osagarri” gisa jasotako ordainsariak ordaintzen dira, eta EPTBko osagarria ez zaie aplikatzekoa udaleko langileentzat.
- Udaltzaingoaren “prestasun-poltsaren”, txanda-osagarriaren eta aparteko orduen erregulazioa ez dago onartuta Tokiko Gobernu Batzarraren erabakiz, baina lehen bi kontzeptuen ordainketa Udaleko Langileen Akordio Kolektiboan jasota dago.

Graduaren, antzinatasunaren, familia-laguntzaren eta aparteko orduen arabeko ordainsarien lagin bat ere berrikusi da, eta, oro har, bat datoz aplikatu beharreko araudiaren arabera dagozkienekin.

Gure gomendioak:

- *Nomina alde zurretik fiskalizatzea.*

- *Organo eskudunak plantilla organikoaren aldaketak onestea eta aldaketa guztiak argitaratzea, plantillan lanpostuen ordainsari osagarri guztiak sartuta.*
- *Langileen deialdien eta horiek gauzatzeko behar diren baliabideen plangintza berrikustea, dagozkien LEPen indarraldiaren barruan.*
- *Espedientean justifikatu beharko da LEPean sartutako plazetarako Estatuako Aurrekontu Orokorren Legean ezarritako baldintzak betetzen direla, bai enpleguaren ordezte-tasari dago-kionez, bai egonkortzeari dago-kionez.*
- *Langileak hautatzeko prozesuen espedienteetan, deialdiari eta deialdiaren oinarri arautzai-leei buruzko txosten juridikoa sartzea, betiere prozedura mugatuaren erabilera justifikatuz.*
- *Tokiko Gobernu Batzarraren akordio bidez onestea “prestason-poltsa”ri, txanda-osagarriari eta aparteko orduen ordainsaria zehazteko moduari buruzko erregulazioa.*
- *“Irakaskuntza-osagarria” deritzona egokitzea, EPTBn jasotako beste osagarri mota baten arabera.*

VI.5.3 ONDASUN ARRUNTETAKO ETA ZERBITZUETAKO GASTUAK

Ondasun arruntetan eta zerbitzuetan egindako gastuak 69,07 milioi eurokoak izan ziren. Eki-taldian aitortutako betebeharrak guztien ehuneko 35 egiten dute, eta haien betetzea behin betiko kredituen ehuneko 96koa izan da.

Aurreko ekitaldiarekin alderatuta, ehuneko lauko jaitsiera gertatu da.

Hona hemen ondasun arrunten eta zerbitzuen gastuak osatzen dituzten kontzeptu nagusiak eta 2018koekiko izan den aldea:

Deskribapena	Aitortutako betebeharrak, 2018 garbiak	Aitortutako betebeharrak, 2019 garbiak	2019/18 aldea (%)
Eraikinen eta bestelako eraikuntzen errentamendua	312.271	312.249	0
Garraio-elementuen errentamendua	151.499	152.193	0
Kontserbazioa, konponketak eta mantentze-lanak Azpiegiturak eta ondasun naturalak	6.188.076	6.524.539	5
Kontserbazioa, konponketak eta mantentze-lanak eraikinetan eta bestelako eraikuntzetan	1.889.850	1.901.166	1
Kontserbazioa, konponketak eta mantentze-lanak makinerian, instalazio teknikoetan eta tresnerian	521.859	489.792	-6
Kontserbazioa, konponketak eta mantentze-lanak garraio-elementuetan	237.628	205.587	-13
Bulegoko materiala	137.931	136.595	-1
Hornidurak	9.175.254	9.069.216	-1
Komunikazioak	542.184	591.410	9
Garraioak eta pleitak	195.815	210.538	8
Aseguruak	386.526	439.917	14
Tributuak	162.332	162.767	0
Zenbait gastu	7.221.103	4.556.860	-37
Beste enpresa batzuek egindako lanak	43.938.390	43.807.279	0
Argitalpen- eta banaketa-gastuak	310.920	235.150	-24

Honako gastu-lagin hau aztertu dugu:

Deskribapena	Aitortutako betebeharrak, 2019 garbiak
Argiteria publikoaren instalazioetako mantentze-lanak	1.846.838
Bide publikoen eta eremu publikoen zoladura mantentzea	1.109.289
Ibilgailuak erretiratzeko zerbitzua	995.057
Herritarrentzako komunikazioa. Publizitatea eta propaganda	868.944
Hiri-altzarien, haurrentzako jolastokiaren eta soinketa-zirkuituen mantentzea eta kontserbazioa	591.703

Egin dugun berrikuspenetik ondorioztatzen dugu ezen, oro har, fiskalizaturiko laginean gastuak justifikatuta, onetsita, kontu hartuta eta egokiro kontabilizatuta eta ordainduta daudela. Dena den, akats hau aipatu behar dugu:

- Hiri-altzariak mantentzeko eta bide publikoetako zoladurak kontserbatzeko kontratuak 2017ko abenduan eta 2018ko abenduan amaitu ziren, hurrenez hurren. Egungo ekitaldian, 574.419 euroko eta 1.099.804 euroko gastuak aitortu dira zerbitzu horiek direla eta.

Kontratuen lizitazioa eta adjudikazioa

Ondoren aipatzen ditugun lizitazioak berrikusi ditugu, bai eta haien adjudikazioa eta urte horretako gastu-exekuzioa ere:

Kontratua	Prozedura	Aplikatzekoa den arau-esparrua	Zenbat lizitatuak	Lizitazioaren zenbatekoa	Adjudikazio-prezioa	Beharpena
Udal eraikinak garbitzea	Irekia, Europako atalasetik gora	2/2018 Foru Legea	12 lote 1-6 lizit/lote	11.370.921	10.688.062	6
Energia-hornidura argiteria publikoko instalazioetan	Irekia, Europako atalasetik gora	2/2018 Foru Legea	5	2.314.050	2.314.050	44*
Beteazpen-aldiko zorrak biltzeko kudeaketa-zerbitzuak eta aldizkako zergen ordainagiriak inprimatzea, tolestea eta banatzea	Irekia, Europar Batasuneko atalasetik gora	2/2018 Foru Legea	3 (1. lotea) 0 (2. lotea)	904.550 / 788.000 (lote 1)	596.425	24
Alde Zaharreko Prebentzio Ekintza Komunitarioko Zerbitzuaren kudeaketa	Irekia, Europar Batasuneko atalasetik behera	2/2018 Foru Legea	1	141.781	141.781	0
Iruñean seinale horizontalak eta bertikalak hornitzea, instalatzea eta mantentzea.	Irekia, Europar Batasuneko atalasetik gora	2/2018 Foru Legea	6	495.868	495.868	20*
Udal publizitatea jartzea Diario de Navarra egunkarian	Negoziatua, publizitaterik gabe	2/2018 Foru Legea	1	235.537	176.653	25

(*) Eskaintza ekonomikoa ez zen izan zenbateko jakin bat, baizik eta proiektuan jasotako unitate-prezioekiko baja-porzentaje bat.

Oro har, kontratuen lizitazioa eta haien adjudikazioa, bai eta kontratuen exekuzioa ere, kontratuei buruzko legeriari jarraituz izapidetu dira, eta gastuak onetsita, kontu-hartzaitzak aztertuta, justifikatuta, zuzen kontabilizatuta eta ordainduta daude; halere, honako gorabehera hauek aipatu behar ditugu:

- Udal eraikinak garbitzeko kontratuak eta nahitaezko diru-bilketako zerbitzuarenak 2019an lizitatu dira, baina exekuzioa ez da 2020ra arte hasi. 2019an, honako gastu hauek aitortu dira: 4,27 milioi euroko gastua eraikinak garbitzeko eta 1,06 milioi euroko gastua nahitaezko diru-bilketako zerbitzuan. Biek ere mugaeguneratutako kontratuak zituzten.
- Prebentzio-ekintza komunitarioko zerbitzua kudeatzeko kontratua hilabetetik gorako atzerapenarekin adjudikatzen da.
- Oro har, Nafarroako Kontratazioaren Atarian ez dira Kontratazio Mahaiaren aktak argitaratzen.
- Seinaleztapen bertikaleko eta horizontaleko kontratuaren balorazio ekonomikorako erabilitako formula ez da linealki proportzionala den formula matematikoaren bidez egin; beraz, ehuneko 15etik gorako beharpenetik aurrera, puntuazioa eskaintako beharadaren proportzio txikiagoan esleitzen da.

Gure gomendioak:

- *Kontratuen lizitazio-prozeduren denbora-plangintza egokia ezartzea, haien gehieneko indaraldia ez gaintzeko.*
- *Kontratuen adjudikazioak egin kontratuei buruzko araudiak ezarritako epeetan.*

- *Kontratazio-prozeduretan parte hartzen duen mahaiaren aktak Nafarroako Kontratazio Atarian argitaratzea.*
- *Pleguetan balorazio ekonomikorako formula linealki proportzionalak ezartzea, lizitatuzaileek lortutako puntuazioa prezio-murrizketarekiko zuzenki proportzionala izan dadin.*

VI.5.4 Inbertsioak

Inbertsioak 10,77 milioi eurokoak izan dira. Ekitaldian aitortutako betebeharrak guztien ehuneko bost egiten dute, eta haien betetze-maila behin betiko kredituen ehuneko 59koa izan da. Hasierako kredituek 17,2 milioiko gehikuntza izan dute gastuen aurrekontuari egindako aldaketan bidez, eta behin betiko kredituek 18,14 milioiko gehikuntza izan dute guztira.

Aurreko ekitaldiarekin alderatuta, aitortutako gastuaren murrizketa ehuneko 19koa izan da.

Obra-kontratuen eta eraikinen erosketaren lagin hau fiskalizatu dugu:

Kontratua	Prozedura	Aplikatzekoa den arau-esparrua	Zenbat lizitatuzaile	Lizitazioaren zenbatekoa	Adjudikazio-prezioa	Beharpena (%)
Salestarren eraikina erostea	Negoziatua, publikiz-taterik gabe	6/1990 Foru Legea	1	1.425.594	1.425.594	0
IFS 2018/10 I. zabalgunea berrurbanizatzea. Atsegin egitea eta mugikortasuna	Irekia, Europar Batasuneko atalasetik behera	2/2018 Foru Legea	4	1.047.132	863.152	-18
San Pedro multzoko udal etxebizitzak eraberritzea	Irekia, Europar Batasuneko atalasetik behera	2/2018 Foru Legea	6 (1. lotea) 7 (2. lotea) 6 (3. lotea)	522.000	481.794	-8
Hegoalde Ikastola ikastetxe publiko patioa estaltzea	Irekia, Europar Batasuneko atalasetik behera	2/2018 Foru Legea	1	297.480	266.472	-10
IFS 2018/10 Arrosadiako auzo-unitatea, Irati ibaia kaleko 9an	Irekia, Europar Batasuneko atalasetik behera	2/2018 Foru Legea	3	285.784	258.799	-9
Ziudadela. Arma-aretoan berokuntza instalatzea eta beheko solairua eraberritzea	Irekia, Europar Batasuneko atalasetik behera	2/2018 Foru Legea	3	245.161	242.709	-1
IFS 2018/10 Patxi Larrainzar ikastetxe publikoan sabai aizunak ordeztzea	Irekia, Europar Batasuneko atalasetik behera	2/2018 Foru Legea	2	220.587	214.640	-3

Oro har, kontratuen lizitazioa eta haien adjudikazioa legeria betez egin dira, eta gastuak onetsita, kontu-hartzaileak aztertuta, justifikatuta, zuzen kontabilizatuta eta ordainduta daude. Halere, zenbait gorabehera detektatu dira berrikusitako espedienteen izapidetzean; ondoren, aipagarrienak azalduko ditugu:

- Inbertsio plan bat egotearen arrastorik ez da ageri.
- Kontratuak adjudikatzeko, eskaintza ekonomikoa baloratzearen formula erabili da kasu guztietan, batez besteko bajan oinarrituta. Ganbera honek behin eta berriz gomendatu du formula hori ez erabiltzea, ez baitu beti errazten adjudikazioak efizientzia- eta ekonomia-irizpideetara egokitzea.
- Organo kudeatzaileek ez dute jarraipenik egiten gizarte- eta ingurumen-irizpideak eta gauzatze-baldintza bereziak betetzen diren ala ez jakiteko. Gure fiskalizazioa dela eta, jarraipena egin dugu eta egiaztatu dugu berrikusitako laginerako ezarritako baldintzak betetzen direla.
- Kasu guztietan ez dira adjudikazio-epeak betetzen, ezta pleguetan obraren zuinketarako ezarritako epeak ere.
- Oro har, Nafarroako Kontratazioaren Atarian ez dira Kontratazio Mahaiaren aktak argitaratzen.
- San Pedro multzoko eta Arrosadia auzoaren unitateko etxebizitzak konpontzeko obrak espedienteetan, ziurtagiri gehienak 30 egunetik gorako epean ordaindu dira.

- Kontratazio Atarian ez da argitaratu Arrosadia auzoaren unitatea eraberritzeko obraren kontratuaren aldaketa.
- Hegoalde ikastolako obran ikusi dugunez, gastu-proiektuak ez ditu behar bezala jasotzen obraren betebeharrak eta finantzaketa, eta, beraz, kalkulaturako desbideratzea ez da zuzena.

Gure gomendioak:

- *Inbertsio-plan bat onestea, plangintza egokia egin ahal izateko, bai eta haren jarraipena, kontrola eta ondorengo ebaluazioa ere.*
- *Pleguetan balorazio ekonomikorako formula linealki proportzionalak ezartzea.*
- *Obren adjudikazioak eta zuinketa horretarako ezarritako epeetan egitea.*
- *Kontratazio-prozeduretan parte hartzen duen mahaiaren aktak Kontratazio Atarian argitaratzea, bai eta izapidetutako kontratu-aldaketak ere.*
- *Kasu guztietan, kontratuak gauzatzeko baldintza-agirietan ezarritako baldintzak betetzen direla egiaztatzea.*
- *Kontratazio publikoaren esparruan obra-ziurtagiriak ordaintzeko aurreikusitako gehieneko epea errespetatzea.*
- *Gastu-proiektuen jarraipen egokia egitea, finantzaketa-desbideratzeak behar bezala kalkulatzeko direla ziurtatzeko.*

VI.5.5 Transferentzia-gastuak

2019an, udalak 20,61 milioi erabili zituen transferentziak egin eta dirulaguntzak emateko. Honako hauek izan ziren onuradunak:

	Transferentzia arruntak		Kapital-transferentziak	
	Aitortutako betebeharrak	2019/2018 aldea (%)	Aitortutako betebeharrak	2019/2018 aldea (%)
Erakunde autonomoi egindako transferentziak	8.029.786	-18	203.908	-80
Toki-entitateko ente publikoei eta merkataritza-sozietateei emandako beste dirulaguntza batzuk	438.501	-28	0	0
Nafarroako Foru Komunitateko Administrazio Orokorrari	218.842	11	0	0
Nafarroako Foru Komunitateko enpresa publikoei	165.000	0	0	0
Udalei	0	-100	0	0
Mankomunitatei	2.593.724	4	0	0
Beste enpresa pribatu batzuei emandako dirulaguntzak	98.021	15	0	0
Familiei	2.090.180	-5	744.299	-13
Irabazi asmorik gabeko erakundeei	4.870.311	2	0	0
Europar Batasunera transferentziak	1.043.589	-2	115.000	-36
Guztira	19.547.954	-9	1.063.207	-49

Transferentziek eta dirulaguntza arruntek 19,55 milioi euro egin zuten. 2019ko ekitaldian aitortutako betebeharren guztizkoaren ehuneko hamar dira. Haien betetze-maila behin betiko kredituen ehuneko 98 da. Aurreko urtearen aldean, ehuneko bederatzi egin dute behera.

Transferentziak eta kapitaleko dirulaguntzak 1,06 milioikoak izan ziren; horrek 2019an aitortutako betebeharrak guztien ehuneko 0,5 egin zuen, eta ehuneko 49 egin dute behera aurreko ekitaldiarekin alderatuta.

Transferentzien eta dirulaguntzen honako lagin hau fiskalizatu dugu:

Kontzeptua	Aitortutako betebeharrak (2019)
Garapenerako nazioarteko lankidetzako proiektuetarako dirulaguntza	892.367
Hegoaldeko toki entitateen tokiko garapenerako lankidetzako proiektuetarako dirulaguntza	180.000
Gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna sustatzeko proiektuetarako dirulaguntza	130.000
Gurasoen elkarreentzako eta guraso elkarrean federazioentzako dirulaguntza	80.000
Gazte ekintzaileek enpresak sortzeko dirulaguntza	48.021
Secretariado Gitano fundazioarentzako dirulaguntza izenduna	30.000
Eraikinen ebaluazio-txostenak egiteko ordainsari teknikoetarako dirulaguntza	15.293

Oro har, emandako eta ordaindutako transferentzia eta dirulaguntza guztiak egokiro onetsita, fiskalizatuta eta kontabilizatuta daude, kasuko akordioen edo deialdien arabera; halere, honako alderdi hauek aipatu behar ditugu:

- Berdintasuna sustatzeko proiektuetarako dirulaguntzen deialditik berrikusitako laginean, desberdintasunen bat antzeman dugu diruz lagun daitekeen zenbateko justifikatuan, eta udalak dagozkion itzulketa-espeditentia ireki du.
- Gurasoen elkarreentzako eta guraso elkarrean federazioentzako dirulaguntzen deialdian ez da kasu guztietan jaso diruz lagundutako jardueri lotutako diru-sarreraren justifikazioa, eta, beraz, ezin da haien defizita kalkulatu.
- Berrikusitako zenbait dirulaguntzatan, gastuaren aintzatespenaren kontabilizazio-data hura onartzen duen ebazpenaren data baino lehenagokoa da; batzuetan hurrengo ekitaldiko data du.

Gure gomendioak:

- Deialdiaren oinarrietan hala ezartzen den kasuetan, diruz lagundutako jardueri lotutako diru-sarreraren justifikazioa eskatzea, udalak jarduera horien defizita kalkulatu ahal izan dezan.
- Dirulaguntzen deialdiak behar bezala planifikatzea, udalak dagozkion ebazpenak ekitaldiaren barruan onetsi ahal izan ditzan.

VI.5.6 Tributuak, prezio publikoak eta beste diru-sarrera batzuk

Tributuengatik, prezio publikoengatik eta bestelako diru-sarrerengatik 2019an aitortutako eskubideek 98,71 milioi egin zuten. Udalaren diru-sarrera guztien ehuneko 47 egiten dute, eta honako hauei dagozkie:

Kontzeptua	Aitortutako eskubide garbiak		Betetzea (%)	2019/2018 aldea (%)
	2018	2019		
Zuzeneko zergak	55.474.256	57.822.254	107	4
Zeharkako zergak	9.607.382	9.392.786	155	-2
Tasak, prezio publikoak eta beste diru-sarrera batzuk	30.902.618	31.494.489	117	2

Zergak

Zergak udalaren diru-sarrera guztien ehuneko 31 egiten dute, eta honako hauei dagozkie:

Kontzeptua	Aitortutako eskubide garbiak	Diru-sarreraren guztizkoaren gainean (%)	2019/2018 aldea (%)
Zuzeneko zergak	57.822.254	27	4
Lurraren kontribuzioa	29.872.781	14	1
Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergak	9.859.122	5	-1
Hiri-lurren balioaren igoeraren gaineko zerga	8.296.498	4	34
Jarduera ekonomikoen gaineko zerga	9.072.082	4	1
Luxuzko gastuen gaineko zerga (bingo jokoan lortutako sariak)	721.771	0	-2
Zeharkako zergak	9.392.786	4	-2
Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga	9.392.786	4	-2

Zenbateko handieneko eskubide aitortuak 29,87 milioiko lurralde-kontribuzioari dagozkio, aurreko ekitaldiarekiko ehuneko bateko gehikuntzarekin.

Udalak aplikatutako tasak Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legeak jasotzen duen sortaren tarte altuan kokatzen dira, hurrengo taulan ikus daitekeen bezala:

Tributu-figura	Udala	2/95 Foru Legea
Hiri-lurraren gaineko kontribuzioa	0,3878	0,10 - 0,50
Landa-lurren kontribuzioa	0,80	0,10 - 0,80
Ekonomia-jardueren gaineko zerga (EJZ)	1,32-1,4	1 - 1,4
Lurren balio-gehikuntza	23	8-25
Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga (EIOZ)	5	2-5
Luxuzko gastuen gaineko zerga	8	0-10

Oraindik ere ez da onetsi guztizko balorazio-ponentzia, zeinak balioak gaurkotu eta Toki Ogasunei buruzko Foru Legean lurraren kontribuziorako ezarritako zerga-tasa bakarra egokituko di-tuen.

Tributuak Ikuskatzeko Plana berrikusi dugu, bai eta diru-sarreraren partida hauei buruzko lagin bat ere:

Kontzeptua	Aitortutako eskubideak	Kobrantzak (%)	2019/2018 aldea (%)
Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga	9.859.122	93	-1
Luxuzko gastuen gaineko zerga (bingo jokoan lortutako sariak)	721.771	100	-2

Berrikusitako zergei dagokionez, egiaztatu dugu ezen, orokorrean, likidazioa eta diru-bilketa ordenantzei eta kasuko araei jarraituz egin direla. Horri dagokionez, honako hau adierazi behar dugu:

- Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergaren araupetzea, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko Foru Legean jasotakoa, zaharkituta dago zenbait alderditan —esate baterako, potentzia fiskalaren tarte araberako banaketan, salbuespenetan eta abarretan—, Estatuko gainerako autonomia erkidegoekin alderatuz gero.
- Luxuzko gastuen zergari dagokionez, prozedura arrunt bat badago, zeinaren bidez, zergadun batek administrazioarekiko auzi-errekurtsioa aurkeztu baitu guztira 2,57 milioi egiten duten autolikidazioak itzul dakizkion lortzeko. Errekurtsioa ixteke zegoen arren, 2020ko maiatzean atzera bota dute, eta zergadunak apelazio-errekurtsioa aurkeztu du.

2019ko martxoan Udalak Zerga Ikuskaritzako Plana onetsi zuen, eta irailean BOEn argitaratu ziren plan horren oinarri diren irizpide orokorrak.

2019an egindako ikuskapen-jardueren ondorioz, emaitza hauek lortu dira:

Kontzeptua	Aitortutako eskubideak	Kobrantsak	Ordainagiri kopurua	Aldea (%) Aitortutako eskubide garbiak, 2019/2018
EJZ	0	0	0	-100
EIOZa	552.477	547.381	168	-17
Geroratzeen interesa	133	133	4	32
Berandutze-interesa	1.324	1.324	13	-87
Obra-lizentziaren tasa	49.895	49.418	96	-5
Bide publikoaren okupazio-tasa	55.987	55.062	61	17
Orokorra, guztira	659.816	653.318	342	-19

Tributu-ikuskapenetik eratorritako eskubideak 659.816 eurokoak izan dira, eta haietatik % 99 kobratu da. Aurreko urtearekin alderatuta, jaitsiera ehuneko 19koa izan da, jarduera orokor txikiagoa izan delako, eta deuseza EJZrekin alderatuta. Nolanahi ere, ikuskapen bidez aitortutako eskubideak dagozkien kontzeptuetan aitortutako eskubide guztien ehuneko 3,4 dira, baina nabarmentzekoak dira bide publikoaren okupazio-tasak, ikuskapen bidez bildutakoak partidan aitortutako eskubide guztien ehuneko 34 baitira.

Tasak, prezio publikoak eta beste diru-sarrera batzuk

Tasek, prezio publikoak eta beste diru-sarrera batzuek udalaren diru-sarrera guztien ehuneko 15 egin zuten, eta honako hauei dagozkie:

Kontzeptua	Aitortutako eskubide garbiak	Aitortutako eskubide garbien guztizkoaren gainean (%)	2019/2018 aldea (%)
Tasak eta prezio publikoak	23.208.921	11	-2
Bestelako diru-sarrerak	8.285.568	4	14

Hurrengo partiden lagin bat berrikusi dugu:

Kontzeptua	Aitortutako eskubide garbiak, 2019	Aldea (%), 2019/2018
Kirol instalazioetako eta udal lokaletako tasak	775.059	7
Ibilgailuak bide publikotik eramatea	766.507	-16
Bide publikoaren okupazio-tasak (mahaiak eta aulkiak)	542.050	-6
Berandutze eta geroratzeen interesak	271.218	-47
Kalen eta zangen gaineko tasak	121.847	214

Berandutze-interesengatik eta gerorapenengatik aitortutako eskubideen murrizketa 2018ko ekitaldian izandako ezohiko diru-sarrera baten ondorio da, zeinak urte horretako bilketa 264.000 euro inguru handitu baitzuen. Kalak eta zangak irekitzearen gaineko tasak % 214 igo dira 2019an aurreko ekitaldiarekiko, ohikoak ez diren eta 77.984 euroko diru-sarrera gehigarriak ekarri dituzten bi likidazioen ondorioz.

Egindako azterketatik ondoriozta dezakegu ezen, orokorrean, likidazioa eta diru-bilketa aplikatzekoa den araudiaren arabera egin direla; halere, honako hau aipatu behar dugu:

- Udala karga informatikoa egiten ari da tasa eta prezio publikoak ezartzeko kostuen azterketa bat egite aldera, azterketa horrek egungo kostuen kalkulua ordeztu dezan.
- Azkenean autoak desegiteko lekura bidaltzen diren ibilgailuak erretiratzeko direnean, udalak ez ditu likidatzen garabi-tasa eta ibilgailuaren titularrari dagokion egonaldi-tasa.

- Ez dago jasota terrazak kontrolatzeko plana martxan jarri denik instalazio guztien egoera berrikusteko eta elementuak dagokion ordenantzan ezarritakora egokitzeko.
- Kalak eta zangak irekitzeko tasaren kudeaketan antzematen da kasu guztietan ez dela diruzaintza-alorrera bidaltzen jasotako abala, alor horretan hura erregistratu eta kontrola dadin. Gainera, egiaztatu da udalak ez dituela abalak dagozkien ordena-kontuen bidez kontabilizatzen, eta, horregatik, ez direla balantzean agertzen.

Gure gomendioak:

- *Balorazio-ponentzia bat behin betiko onestea, katastro-balioak aldatuko dituen, lehendik daudenak gaurkotuz.*
- *Kostuen azterketa egiten jarraitzea, hura behin betiko ezartzeko.*
- *Kasu guztietan, garabiaren eta egon-aldiaren tasak likidatzea udal gordailuan.*
- *Terrazak kontrolatzeko plan bat abian jartzea, ordenantza arautzaileak aurreikusi bezala.*
- *Arlo guztien eta diruzaintzaren arteko koordinazio-prozedura bat ezartzea, azken horrek jasotako abal guztiak jaso eta erregistratzeko, eta abal horiek dagozkien ordena-kontuen bidez kontabilizatzea.*

VI.5.7. Transferentziengatiko diru-sarrerak

Transferentzia arruntengatik eta kapital-transferentziengatik aitortutako eskubide garbiak 104,19 milioi eta 4,26 milioi izan ziren, hurrenez hurren, eta, guztira, diru-sarrera guztien ehuneko 51 izan ziren.

Aurreko urtearekiko datu konparatiboek honako alde hauek erakusten dituzte:

Kontzeptua	Aitortutako eskubide garbiak		Aldea (%) 2019/2018
	2018	2019	
Transferentzia arruntak	102.069.730	104.194.177	2
Kapital-transferentziak	863.580	4.260.848	393

Kapital transferentzien gehikuntza Nasuvinsak egindako 2,4 milioiko diru-sarrerari zor zaio batez ere. Diru-sarrera hori Salestarren operazioaren hitzarmenaren barruan dago jasota, eta Zabalgunean Civivox bat eraikitzeari lotuta dago. Obra hori oraindik ez da hasi. Era berean, hirigintza-aprobetxamenduen partida 0,6 milioi baino zertxobait gehiago hazi da.

Transferentzia- eta dirulaguntza-partiden honako lagin hau berrikusi dugu:

Kontzeptua	Aitortutako eskubide garbiak, 2019
Gizarte Zerbitzuen eta Berdintasunaren arlorako dirulaguntza	3.520.098
Civivoxa eraikitzeak hitzarmena	2.400.000
NFKArekin izenpetutako hitzarmenen dirulaguntza	1.083.005
Nafarroako Gobernuak Hegoalde Ikastolari emandako dirulaguntza	150.000
Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren lantegi-eskola	42.983

Nafarroako Gobernutik datozen dirulaguntzen berrikuspena honako hau izan da: egiaztatzea ea udalaren aurrekontu-informazioa bat datorren NFKArekin, bai eta horien euskarri diren administrazio-egintzekin eta udalak aurkeztutako justifikazioarekin ere.

Egindako lanetik ondorioztatzen dugu, oro har, onartutako eskubideen likidazioa aplikatu beharreko araudiaren arabera justifikatuta dagoela, baina honako hau nabarmentzen dugu:

- Udalak, zenbait kasutan, NFKatik datozen dirulaguntzen aitortzea kontabilizatzen du, dirulaguntza horiek ematen diren unean, kobratzeko unean kontabilizatu beharrean edo dirulaguntza ematen duen erakundeak dagokion betebeharra aitortu duela jakiteko unean kontabilizatu beharrean.

- Kapitaleko dirulaguntza finalistak kontabilizatu dira, haiek dagozkion gastu-proiektuari egotzi gabe (Patxi Larrainzar ikastetxe publikoa, San Jorge ikastetxe publikoa, María Auxiliadora ikastetxearen eraberritzea). Horren ondorioz, dagozkion desbideratzeak ez dira kalkulatu, aurrekontu-emaitzan, diruzaintzako gerakinean eta superabitean duten eraginarekin. Obra IFS gisa hartzen bada, gastu-arauaren kalkuluan konputagarria den gastuaren doikuntza bikoiztu egin daiteke, San Jorge Herri Elkargoaren obraren kasuan gertatzen den bezala.

Gure gomendioak:

- *Dirulaguntzen eskubideen aitortpena egitea haiek kobratzeko unean, edo, hala badagokio, ente emaileak kasuan kasuko betebeharra aitortzeko egintza eman duela jakiten den unean.*
- *Kapital-sarrera finalistak horretarako sortutako gastu-proiektuarekin lotzea, eta gainerako aldea gastu-arauaren kalkuluan konputagarria den gastu-doikuntzat hartzea, hala badagokio.*

VI.5.8. Ondare bidezko diru-sarrerak

2019an, ondare bidezko diru-sarrerak 2,97 milioikoak izan ziren, eta ekitaldian aitortutako diru-sarreraren guztizkoaren ehuneko 1,4 egin zuten.

Honako kontzeptu hauei dagozkie:

Kontzeptua	Aitortutako eskubide garbiak	Diru-sarreraren guztizkoaren gainean (%)	2019/2018 aldea (%)
Banku-kontu korranteetako interesak	79.530	0	780
Dibidenduak eta mozkinetako partaidetzak	86.621	0	35
Hiri finen eta lokalen errentamenduak	767.028	0,4	2
Emakidak eta kanonak	2.040.860	0,9	5

Kontu korranteen interes gisa erregistratutako zenbatekoa berandutze-interesei dagokie, eta 3. kapituluari egotzi behar zitzaion.

Hiriko eta tokiko finen errentamendu-partidaren lagin bat berrikusi dugu, eta egiaztatu dugu haien likidazioa eta bilketa aplikatu beharreko araudiaren arabera egiten direla.

VI.5.9 Inbertsio errealak besterentzea

2019an, 1,88 milioi euroko diru-sarrerak izan zituzten udalek inbertsioak besterentzeagatik, aurreko urtean baino % 65 gutxiago.

Egindako berrikuspenetik egiaztatzen da espedienteak, oro har, toki esparruan aurreikusitako ondare-araubidearen arabera izapidetu direla. Halaber, eragiketa horien zenbatekoa baliabide atxiki gisa jaso da diruzaintzako gerakinaren egoera-orrian, eta besterendutako inbertsioei baja eman zaie udal inbentarioan.

VI.5.10. Erakunde autonomoak

Haur Eskolak

Haur-eskoletako fiskalizazioa langileen plantilla organikoa berrikustean eta 2019ko LEPean egin da.

Erakunde autonomoaren plantilla organikoaren behin betiko onespina 2019ko maiatzaren 2ko NAOOn argitaratu zen. Onespen hori dela-eta gora jotzeko errekurtsioa aurkeztu zen Nafarroako Administrazio Auzitegian, zeinak, azkenean, 2020ko urtarrilean, plantilla hori deuseza zela adierazi baitzuen.

Araubide juridikoaren arabera, lanpostu hauek sartu ziren:

Araubidea	Zenbakia
Funtzionarioak	125
Lan-kontratu mugagabedun ez-finkoak	36
Lanaldi partzialeko lan-kontratudunak	68
Behin-behineko lanpostua	2
Guztira	231

2018. urtearekin alderatuta, plantilla sei lanpostutan handitu da, hiru lanpostu amortizatu eta bederatzi lanpostu berri sortu baitira.

Oroitidazkian jasotako datuen arabera, 2019ko itxieran haur-eskoletako langileak 218 ziren, horietatik 187 "plantillakoak" eta 31 "ordezkapenetako" langileak.

Plantillako 231 plazetatik 195 daude hutsik guztira, hau da, lanpostuen % 84. 2019an 91 hezitzaile-lanpostuko deialdia onetsi zuen, baina haren aurkako errekurtsua jarri eta baliogabetu egin zen; hainbat egintzaren aurkako errekurtsuak ere badaude. Gaur egun, errekurtsu guztiak ebazten ez diren bitartean, ez da deialdi berria hasiko.

Ezin dugu zenbatu lanpostu huts horietatik zenbat dauden beteta, lanaldi partzialeko lanpostuak eta kontratuak daudelako eta kontratu asko ez direlako lanpostu huts zehatzekin lotzen. Erakundeak langileak kudeatzeko erabiltzen duen sistema ez da nahikoa kudeaketa egokia egiteko, eta, ondorioz, ezin da bertatik lanpostuak eta pertsonak elkarrekin erlazionatzeko behar den informazioa lortu.

LEPa eta ordezte-tasa eta aldi baterako enpleguaren egonkortze-tasa

2019ko LEPa onetsi eta martxoaren 12ko NAO n argitaratu zen, eta 54 plaza jaso zituen; horietatik lau langileen behin betiko bajengatik ordezte-tasari dagozkio, eta gainerakoak egonkortze-tasari. LEP horren aurkako errekurtsua jarri zen, eta gaur egun epaiaren zain dago Nafarroako Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan jarritako azken errekurtsua.

Birjartze-tasari dagokionez, egiaztatu dugu sartutako lanpostuek bete egiten zitzutela EAOLen jasotako baldintzak. Egonkortze-tasari dagokionez, ez dago LEPean sartutako lanpostuen justifikaziorik, ez lanpostu horien identifikazioari dagokionez, ez eta EAOLen ezarritako baldintzak betetzeari dagokionez ere. Ezin izan dugu egiaztatu enplegu-egonkortze gisa sartutako plazen antzinatez eskakizuna betetzen den, zeren eta, adierazi den bezala, kontratuak ez baitaude, oro har, lanpostu huts zehatzekin lotzen.

Gure gomendioak:

- *Plantillaren behin-behinekotasun tasa handia murrizteko neurri egokiak hartzea, egungo gorabehera juridikoak konpondu ondoren.*
- *Langileak kudeatzeko tresnak egokitzea, prozesuen eraginkortasuna eta plantillari eta kontratatutako langileei buruzko informazioaren eskuragarritasuna hobetzeko.*
- *LEParen espedientean justifikatzea bertan sartzen diren lanpostu zehatzak, bai eta plaza horiek EAOLen ezarritako baldintzak betetzen dituztela ere.*

Hirigintzako Gerentzia

Erakunde honen fiskalizazioa langileen plantilla organikoa berrikustean eta 2019ko LEPean egin da.

Hirigintzako Gerentzia erakunde autonomoaren plantilla organikoa behin betiko onetsi eta 2019ko maiatzaren 17ko NAO n argitaratu zen.

Araubide juridikoari erreparatuta, honako lanpostu hauek sartu ziren:

Araubidea	Zenbakia
-----------	----------

Funtzionarioak	26
Behin-behineko lanpostua	7
Guztira	33

Ez da aldaketarik egon 2018. urtearekin alderatuta, administrari laguntzaileen lau plaza ofizial administrari lanpostu bihurtzea izan ezik. Plantillaren dokumentua egitean izandako akats baten ondorioz, behin-behineko lanpostu gisa sartutako bi lanpostu funtzionario-araubidekoak dira. Beraz, behin-behineko lanpostuak bost dira eta funtzionarioenak 28.

Gerentziak emandako informazioaren arabera, zeina oroitidazkian, sartu baita, 2019ko ekitaldia ixtean honako hauek ziren plantillako lanpostuak:

Lanpostuak	Gerentzia
Plantillako lanpostuak	33
Lanpostu beteak	20
Lanpostu hutsak	13
Lanpostu guztien gaineko lanpostu hutsak (%)	39
Betetako lanpostu hutsak	7
Betetako lanpostu hutsak (%)	54
Bete gabeko lanpostu hutsak	6
% Bete gabeko lanpostu hutsak	46

Plantillako lanpostu guztien % 39 hutsik daude, eta horietatik % 54 beteta daude.

LEPa, ordezte-tasa eta aldi baterako enpleguaren egonkortze-tasa

Hirigintzako Gerentziak 2019ko lan-eskaintza publikoa onetsi zuen, eta apirilaren 4ko NAOn argitaratu zen, lau plaza barne, guztiak aldi baterako enpleguaren egonkortze-tasan oinarrituta.

Egiaztatu dugu LEPeant sartutako lau plazek bete egiten zutela okupazio-baldintza aurreko hiru urteetan.

Txosten hau, indarrean dagoen araudiak ezarritako izapideak bete ondoren, Edurne Martinikoren Matxain auditoreak proposatuta eman da, bera izan baita lan honen arduraduna.

Iruñean, 2020ko abenduaren 15ean

Lehendakaria,

Asunción Olaechea Estanga

BEHIN-BEHINEKO TXOSTENARI AURKEZTUTAKO ALEGAZIOAK

Iruñeko Udalari buruzko 2019ko ekitaldiko behin-behineko fiskalizazio-txostenaren testuari dagokionez, ALEGAZIO hau egin da aurrekontu-egonkortasunaren eta finantza-iraunkortasunaren arauak aplikatzeari buruz.

Aipatutako behin-behineko txostenak honako hau dio “Laburpen exekutiboa” apartatuan:

“3) Udalak aurrekontu-egonkortasunaren eta finantza-iraunkortasunaren arauak bete ditu, baina gastu-arauan ezarritako muga gainditu du. Hala ere, gaur egun egonkortasun-arau fiskalak etenda daudenez, ez da beharrezkoa dagokion plan ekonomiko-finantzarioa egitea”.

Era berean, berariazko azterketan sartu da Ganberak gai horretan behin-behinean atera duen konklusioaren arrazoiak:

“Alde batetik, ez da diru-bilketaren etengabeko igogeratza hartzen Toki Ogasunen Funtsa-ren gehikuntzatik datorrena, haren zenbatekoa 2,9 milioikoa baita, tributu-sarrerak ez direlako”.

Hau da, gaiaren gakoa da desadostasun bat badagoela gai honi buruz: ea Toki Ogasunen Funtsetik etorri den diru-bilketaren igoera diru-bilketaren igoera iraunkor gisa hartu behar den.

Gure ustez, behin-behineko txostenean adierazitako irizpidearen aurka, igoera hori konputagarritzat jo behar da egonkortasun- eta iraunkortasun-arauen ondorioetarako, honako arrazoi hauengatik:

– Aurrekontu-egonkortasunari buruzko 2/2012 Lege Organikoak babesa ematen dio diru-bilketa handitzen duten arau-aldaketan ondoriozko gastu konputagarriaren gehikuntzari:

“4. Diru-bilketaren hazkunde iraunkorrek dakartzaten araudi-aldaketak onartzen direnean, araua aplikatzearen ondoriozko gastu konputagarriaren maila neurri berean handitu ahal izanen da hazkunde hori gertatzen den urteetan”.

Aldi berean, Toki Administrazioari buruzko Hirugarren Gidaliburuak honako hau dio hitzez hitz:

“Tributuen errendimenduan eragina duen erabaki oro hartu behar da araudi-aldaketatzat”.

Udal honek 2013az geroztik kontuan hartu du Foru Komunitateko tributuetako partaidetzak gora egin duela gastu konputagarriaren mugaren kalkuluan, honako arrazoi hauengatik:

- Alde batetik, foru lege batek arautzen du toki ogasunek Nafarroako tributuetan duten partaidetza, eta, beraz, lege horren zenbatekoaren aldaketak eta udalerrri bakoitzari aplikatzeko arau-aldaketa baten ondorio dira: beste foru lege bat onetsi da, Iruñak, funtsarengatik eta hiriburutza-agiriarengatik, aurrekontu-ekitaldi jakin batzuetan jasoko duen zenbatekoari sostengua ematen diona, eta aurreikusten da horrek diru-bilketan igoera iraunkorra eraginen duela.

- Eta, bestalde, foru-tributuetan parte hartzen denez, haiei buruzkoa dela uler daiteke, eta ez transferentzia hutsa, tributu-jatorrikoa baita.

– Estatuko Administrazioiko Kontu-hartzailatza Nagusiak gai horri buruzko kontsulta bati erantzun dio, eta ez du zergetan parte hartzeagatiko finantzaketa (4. kapitulua) zerga-bilketako igoera iraunkorren kontzeptutik kanpo utzi; izan ere, zehaztu du zer egoeratan har daitekeen kontuan, arau-aldaketari eraginkortasuna aitortzen baitio: “tasen gehikuntza baten ondoriozko gehikuntzaren zatia bakarrik har daiteke kontuan, gehikuntza iraunkorra bada”. Aldea dago Estatua-ren (tokiko erakundeetarako ehuneko finkoa aurreikusten du) eta Nafarroako Gobernuaren artean, azken horrek zenbatekoen arabera banaketa egiten baitu. Zenbatekoen aldaketa Estatuaren Kontu-hartzailatza Orokorraren ustez arau-aldaketa izan litekeen ehuneko aldaketarekin pareka daiteke, baina alde nabarmena dago, gainera, foru-kasuan zenbateko zehatza eta zehatza baita; beraz, gastu konputagarriaren muga kalkulatzeko erabilitako gehikuntza zalantzarik gabea eta zehatza da, eta ez dago ebaluazioen mende.

– Ganberak orain behin-behinekoz okertzat jotzen duen irizpidea, esan dugun bezala, 2013tik aplikatu izan da, horixe baita udal honek gastu konputagarrien konparazioa egin zuen lehen urtea (2012an, ekitaldiko gastu konputagarria baino ez zen kalkulatu, aurrekoarekin konpa-

ratu gabe), eta beti zehaztu da likidazio-txostenetan eta Nafarroako Gobernuari eta Ministerioari Baimena plataformaren bidez egindako komunikazioetan, azken horiek inoiz bestelako irizpiderik adierazi ez badute ere.

Nabarmendu behar da 2017an antzemandako gastu-araua ez betetzean, 2017ko aurrekontuaren likidazio-espeditenteak 1.034,384 euroko gastu-muga ezarri zuela 2017rako kontzeptu horrengatik, eta gastu-bidera itzultzeko onetsitako plan ekonomiko-finantzarioak 2018ko aurrekontuaren aurreikuspenak jasotzen zituela, zeinaren espeditentean 2018rako gastu konputagarriaren muga 1.707.000 euro handitzen baitzen kontzeptu horrengatik. Plan hori Nafarroako Gobernuak onetsi zuen, eta 2017ko likidazioaren eta 2018ko aurrekontuaren xehetasunak xedatu zituen.

Azkenik, azpimarratu nahi dugu foru-tributuen partaidetza dela oinarrizko zerbitzu publikoak finantzatzeko tokiko aurrekontuen zenbatekoan eragin gabeko finantzaketa orokorreko leurririk garrantzitsuena; horrengatik, gastu konputagarriaren muga zehaztean tributu-partaidetza horren handitzea erabiltzeko ezintasunak, behin-behineko txostenaren arabera, arriskuan jar ditzake zerbitzu horien aurrekontu-esleipenak.

Horrengatik guztiagatik, eskatzen dut azaldutako alegazioa baiestea, eta behin-behineko txostena adierazitako moduan zuzentzea.

Iruñean, 2020ko abenduaren 11n

Iruñeko alkatea, Enrique Maya Miranda

BEHIN-BEHINEKO TXOSTENA DELA-ETA AURKEZTUTAKO ALEGAZIOEI KONTUEN GANBERAK EMANDAKO ERANTZUNA

Eskerrak ematen dizkiogu Iruñeko Udaleko alkateari aurkeztu digun alegazioarengatik. Alegazio hori behin-behineko txostenari eransten zaio eta hori behin betikotzat hartzen da, egindako fiskalizazioaren azalpena delako eta ez duelako haren edukia aldatzen. Halere, honako hau aipatu nahi dugu:

Egindako alegazioari dagokionez, eta Estatuko Administrazioako Kontu-hartzailatza Nagusiaren irizpidearen arabera, ez da diru-bilketaren igoera iraunkortzat jotzen Toki Ogasunen Funtsetik datorrena, zeren eta, alde batetik, ez baitator udalak hartutako erabaki batetik, eta, bestetik, ez baita zerga-tasen igoeraren edo zergen zerga-oinarrien ondoriozko igoera bat.

Iruñean, 2020ko abenduaren 15ean

Lehendakaria,

Asunción Olaechea Estanga

